

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 19a / 581. zenbakia



Tuning-a Arrasaten

Autoa norberaren gustura moldatzeko zaletasuna

ORAIN ETA HEMEN: ETXEKO OLIOAK BATUKO DITUZTE/8 • KIROLA: KOADRILA ARTEKO PILOTA TXAPELKETA/10



Beren xelebrekeriak mundura zabaldu zituzten.
Ibarrekoak XELEBERRI-n aurkituko dituzu.

XELEBERRI

- Martitzenetan, 20:30ean
- Errepikapena eguaztenetan, 14:30ean
- Aurkezlea: **Iratxe Eguen**



KALEINKESTA/ Zeren bihera dauketzue Makatzena auzuen?



JUAN BAUTISTA MANZANO
Langillie



ANTONIO ALONSO GONZÁLEZ
Langillie



SANDRA PÉREZ MAULEON
Etxekoandrie



SERGIO SERRANO
Ikaslie



LOLE POZO
Etxekoandrie



ZURIÑE FUENTE
Ikaslie

Edifiziuen arteko boladizuek oso txarto dagoz; zuluek eta dana daukie. Auzuen kontenedoriek ipinttie be ahaztu jakue; baiñe batez be, boladizue-na konponketie gure dogu.

Edifiziuen beheko aldiek konponketie. Goiko bidie zabalketie eta zaborrak batzeko kontenedoriek ipinttie. Bestela, aparkalekuek egingo dittuela esan daue, hortaz...

Aparkalekuek, umiendako ganorazko kolunpikuek, eta arratoiek ezkutaketako lekuri ez daukien lorategiek; izen be, lorategixetan landare igokari asko dago, eta han ezkutaketan die.

Futbituen egitteko zelai bat gure dot, eta kolunpiko gehixago eta hobeto preparamentuek. Itturri bat be ondo etorriko litxakigu, eta eurixe egitten dauenien aterpien egoteko leku bat.

Aparkalekuefako ataripiek konpondu biher die, jaus-ten dabitz-eta. Kolunpiko gehixago be biher dittugu, aparkaleku gehixago, jarlekuek ipinttie eta lorategiek konponketie.

Auzuen jolasleku bat egotie gustauko litxakit, baita diskoteka bat be. Aparkalekuen teillatuek konponketie biher dogu, eta eurixe egitten dauenien nuntiaten egoteko leku bat.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK OINEZKOENDAKO OZTOPO GEHIAGORIK EZ Joan den aspaldian, Zarugalde kalean egin dituzten lan batzuen erruz, espaloizati bat hesituta dago. Irakurle batek jakinarazi digunez, Zarugalde aldeko lanak bukatuta daude, baina espaloiak itxita jarraitzen du. Horren erruz, oinezkoek errepidera jaitsi behar dute, eta gainera, aparkaleku gutxiago uzten ditu Zarugalde kalean bertan.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 13

KULTURA / 14

Saria Ibai Arteri

Merkataritza Ganberak saria eman dio Ibai Arteri, eurora egokitzeke egin duenagatik.

Aerobikeko irakasleak

Amaia eta Miren Solanas aerobikeko irakasleei elkarrizketa egin diegu kirol horren gainean.

Eskola eta Antzerkia

Udalak eta ikastetxeek XII. Eskola-Antzerkiaren jardunaldiak antolatu berri dituzte.

ASTEKO DATUA

181

LAGUNEK EMAN DUTE IZENA GURASO ESKOLAN

Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatutako Iturri programak izugarriko arrakasta izan du. 181 gurasok eman dute izena gurasoen eta seme-alaben arteko gomendioak jasotzeko eskolan.

BESTE EKESANA

“

Poliki-poliki, Fagor taldean aldi baterako langile kopurua hazi da. 2001ean, aldi baterako langileen

kopuru ertaina 1.797 lagunekoa zen, bazkide kopurua, ordea, 6.659 lagunekoa. Zerbaki horien arabera, 2001ean Fagor taldeko behin betiko langileak %26,99a izan dira (...) Merkatuaren gorabeherei eusteko asmoz, aldi baterako lan kontratuak eta aldi baterako langile kopuru zehatza edukitzea ohiko bilakatu dira McGren baitan. (...) Kontraesan bat dago kooperatibismoaren, Mondragon taldearen izaeraren eta praktika horren artean. Aldi baterako langile kopurua murriztu eta langile horien eskubideak hobeto bermatu beharko lirateke”.

IÑAKI ASPIAZU,
J. CARLOS IÑURRIETA,
MIKEL OLABE
'TU LANKIDE' / 02-03-15

HERRITARREN BERBAK/ Eneko Barberena



Ikuspuntuak

Bigarren Gerla Handiaren sasoiaren, Bronislaw Malinowski antropologo melanesiar itsasoetako irla ttipi batetan indigena gizajale batekin solasean ari zen.

Indigenak misionero eta ofizial ingeles bidez entzuna zuten gerlaren berri, bazekien hilak milioika kondatzen zirela, eta antropologoari galdetu zion ea zelan zen posible europarrek hainbeste giza haragi jatea.

Malinovskik, harriturik, europarrek ez dutela etsai hilik jaten erantzun zion. Orduan gizajale hark, are harrituago, izaturik, antropologoari galdetzen zion ea zer jende gaiztoa zen hura, gorpuak jateko asmorik barik hiltzeko gauza zena”.

Sarrionandiak idatzitako pasarte horretatik ondorio ezberdinak atera daitezke, guztiak ere oso interesgarriak. Nor da aurreratuago, indigena ala europarra? Berarekin al dakar teknologiak aurrerape-

na? Galdera horiek maizago egin beharko genizkioke gure buruari. Baina testu honetan bi ikuspuntu nabari dira, gerrari buruzko ikusmoldeak. Guk ankertzat eta basatizat ditugu melanesiar gizajaleak, antropofagiaz dugun kontzeptua dela eta. Beraiek gu gaituzte gaiztotzat, milioika pertsona hiltzeko gai garelako (beraien haragia aprobetxatu gabe).

“Guk basatizat ditugu gizajaleak. Baina eurek gaituzte gaiztotzat, milioika pertsona hiltzeko gai garelako”

Euskal Herri txiki honetan ukazina da hainbat ikuspuntu daudela, hainbat buru hainbat aburu.

Halere, azken egun hauetan argazki pozgarri bat ikusi dugu. Euskal sindikatu guztiak bat eginik, palestinar herriaren eskubideak eta autodeterminazioa eskatzeko. Horrenbestez, galdera berez sortzen da, zergatik ez Euskal Herrian?

Azken hitzak nire klasekide den Aritzi buruzkoak dira, guardia zibilaren eskuetan torturatua eta espetxeratua. Animo, Aritz, zurekin gaude! Pasibitatea, konplizitatea da?

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA

Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA

Ubane Madera

Xabier Urzelai

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA

Arantzasu Lagunilla

Izaskun Bolinaga

Natali Martínez

Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA

Agurtzane Gaiharain

Añe Bereziar

Iratxe Bengoa

BANAKETA

Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA

55-1124/88

ISSN

0214-4654

TIRADA

7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRIOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 19**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 20**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 21**
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 22**
Ruiz. Maala 31..... 943 79 14 09
- MARTITZENA, 23**
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 24**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- EGUENA, 25**
Azkoaga. Iturriotz..... 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea: 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- ARRASATE**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (berduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Joan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia | Santa Marinako eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

TREBATU ZURE EUSKARA
Zahar Berrik Alfabetatze ikastaroa antolatut du. Apirilaren 30etik ekainaren 20ra, martitzenetan eta eguenetan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. Izena eman AEDn, AEKn edo Udal Euskaltegian, apirilaren 26a aurretik. Matrikula 35 euro izango da.

ZAHAR BERRIREKIN TXANGOIA
Zahar Berrikoek Ezkio eta Ormaiztegiara txangoa antolatu dute apirilaren 27rako. 09:00etan irtengo dira, Arbolapetatik, eta 18:00etan bueltan izango dira. Izena eman, lehenbait lehen, Zahar Berrin (AED).

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, 21:30ean, Amaia Udal Antzokian, *Errebelde baten egunkaria* filma. Institutuak antolatuta.

TAILA IKASTAROA
Tailaginen Elkarteak hasierako mailako Taila ikastaroa antolatu du, apirilaren 23tik aurrera. Deitu, gauez, 943 79 40 97 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari) telefonoetara.

MUSIKOTERAPIA IKASTAROA
Emakume Sailak Musikoterapia ikastaroa antolatu du. Astelehenetan, 19:00etatik 20:30era eta egubakoitzetan, 16:00etatik 18:00etara.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltsa zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum-a Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute, hara joateko.


URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibarri, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Mondrako entrenatzaile berriak gertu daude

Mondra taldea krisi larria bizi izaten ari zen, eta krisi egoeratik irteteko, Mondrako zuzendaritzak etxeko gizon bi jarri zituen lanean; Jose Luis Idigoras eta Jose Ramon Arkauz. Zortzi partidu bakarrik falta ziren, eta jaietsiera postuetatik oso hurbil zegoen Mondra futbol taldea.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Jangarkia"



Jale txarra, mizkina. *-Jateko eskaxa danai esate jakok jangarkia, ume bat esate baterako.*

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Jabi Ozaetarekin Holandaren gainean

Oraingo astean Holanda albiste iturri izan dela eta, Amsterdam hirian bizi den Jabi Ozaeta arrasatearrarekin izan gara berbetan. Bestalde, Bingen Mendizabalek, Mikel Urdangarinek eta Kirmen Uribe Uribek *Bar Puerto* Arrasaten eskainiko dutela eta, Kirmen Uribe idazlearekin egon gara; izan ere, idazle bizkaitarrak sari bat eskuratu berri du, Kritika saria, hain zuzen ere, poesiaren atalean. Gogora ezazue *Asteko Elkarrizketak* zapatuan eta domekan izango direla entzungai.



Liburuaren Nazioarteko Eguna

Martitzenean Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, liburuaren inguruan mintzatuko gara martitzenean bertan. Literaturaren gainean mintzatuko gara, eta disko bat oparituko dugu egun horretan: hain justu ere, Markos Untzeta kantariak kaleratu berri duen diskoa zozketatuko dugu. Dei bat egitea nahikoa izango da zozketa horretan sartzeko. Bestalde, astelehenean (hilak 22), Maixa Lizarribar kantariak atera berri duen diskoa aurkeztuko dizuegu Arrasate Irratian: *Sentitzen naiz*.

HAUGIROA!

- MINIMOA** 4 °C
Eguaztena, 10
- MAXIMOA** 18 °C
Martitzena, 16
- ASTEKO EURIA (l/m²)** 52,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	9 °C	4 °C	20,2 l/m ²
Eguena, 11	8 °C	5 °C	18,4 l/m ²
Egubakoitza, 12	12 °C	5 °C	4,2 l/m ²
Zapatua, 13	11 °C	8 °C	2,7 l/m ²
Domeka, 14	8 °C	7 °C	6,1 l/m ²
Astelehena, 15	9 °C	6 °C	0,6 l/m ²
Martitzena, 16	18 °C	4 °C	- l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

- ASTELEHENA**
21:00 MIR

- MARTITZENA**
21:00 Hi bizi hadi

- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

- EGUENA**
21:00 Gailurretik/Mikelenea

- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Lanpostu kopuruak gora MCCn

Lanpostu kopurua gehitzea da Mondragon Korporazio Kooperatibaren helburuetako bat. Eta iazko datuak esku artean, sei mila lanpostu baino gehiago sortu zituen Arrasateko enpresak 2001ean. Bereziki, banaketako taldeak izan du igoera nabarmenena, 4.799 lanpostu sortu zituen-eta. Talde industrialak, berriz, 1.237 lanpostu sortu zituen, talde finantzarioak 180 lanpostu eta korporazioak, 36. Horrez gain, lan-bazkideen kopurua ere finkatu egin da MCCn, batez ere, industria taldeko kooperatibetan.

Alkoholiko Anonimoen batzarra

Urteroko batzarra egin zuen Alkoholiko Anonimoen taldeak joan den zapatuan. Landutako gaien artean, besteak beste, anonimotasuna nabarmendu zuten. Hau da, talde horren izaera anonimoari garrantzi handia ematen diote, eta horri eusten segitzeko asmoa erakutsi zuten.

Bestalde, interesatuta dagoen jendea taldean parte hartzera animatu gura izan dute, euren artean berba egitea dutela xede nabarmenduta.

Guraso Eskolek, arrakasta handia

Gurasoen eguneroko kezka eta ardurei aurre egiten laguntzeko, Guraso Eskolak antolatu ditu Udalak. Hain justu ere, eskolak apirilaren 8an hasi ziren eta 181 gurasok eman dute izena eskoletan parte hartzeko. Ondorioz, aurreikuspen guztiak gainditu dituzte.

Orain, eskola horiek egin ahal izateko behar den diru kopurua handitzea erabaki du Gobernu batzordeak. Hirukoiztu egin behar izan dute kopurua, 3.000 euroko aurrekontua izatetik 11.400 eurokoa izatera pasatu da Iturri deritzon egitasmoaren aurrekontua.

Kontuak kontu, aurrera doaz eskolak, ekainera arte.



Etxebizitzaren prezioak gora egin du

Gora egin du Arrasaten etxebizitzaren prezioak. Espainiako Estatuan %3 egin dute gora etxebizitzek lehen hiru hilabeteotan. Debagoienean batutako datuek, berriz, esaten dute gure ibarrean zertxobait txikiagoa izan dela igoera. Are gehiago, iaz baino txikiagoa izan ei da aurtengoa.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Behin-behinekotasuna

Ospitale zaharreko gaztetxeak hamaika urte bete ditu dagoeneko. Hamaika urte egin ditu eta guztiak behin-behinekotak. Urte horietako edozein azkena izan zitekeen. Inoiz ez da behin betikotasunik egon. 1991n gazteak ospitale zaharrera sartu zirenetik hona, gaztetxearen erabiltzaileek behin eta berriro eskatu diote Udalari lokala

egokitzeko eta intsonorizatzeko. Udalak, ordea, behin eta berriro muzin egin die eskaerei, eta kokapenaren behin betikotasuna argudiatu du. Iraganean, Gazteria Sailak eta AGAKOk egoitza berria adostu zuten. Eta gazteek baldintza bat ezarri zuten: egoitza berria eduki artean, ospitale zaharretik ez joatea. Udal gobernua aldatu zutenean, haizeak pilotaleku

azpiko gaztetxearen zirriborroa eraman zuen. Udal gobernu berriarekin pilotalekuko gaztetxearen proposamena eraldatuta itzuli zen. Egun, etorkizuneko gaztetxeak kokapen zehatza dauka eta proiektua aurrera doa, baina ospitale zaharrean egin gura duten kultur etxeak lehentasuna ei dauka. Gaztetxea ez dute oraindik itxiko, baina ea lau paretan horien artean dagoen ilusio eta ekimenak egoitza propioa izaten jarraitzen duen!

ASTEKO IRUDIA



IPUINAK BETI IPUIN, ETA UMEAK BETI UME

Traza horretan harrapatu genituen ume horiek guztiak joan den martitzenean Monterongo liburutegian. Udal liburutegikoek Liburuaren Egunaren eta *Ipuinez ipuin, haur literaturaren aretoa* programazioaren barruan, hainbat ekitaldi antolatzen dabilta apirilean. Era berean, ipuin kontalariak

ere eraman dituzte Santa Marinako auzo liburutegira eta Monterronera bertara. Irudian duzuen Rai Bueno da, eta Monterronen batutako ume pilo txundituta daude hari entzuten. Bizi garen garai teknologiko hauetan polita da umeak ipuinak entzuten gozaten ikustea. /IKER BARANDIARAN

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ASESORIA
ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

'TUNING'-A/ Arrasaten geroago eta gehiago animatzen dira autoaren itxura aldatzera

"Hemen 'tuning'-ak geroago eta indar handiagoa du, eta hasi besterik ez da egin"

XABIER URZELAI

Tuning delakoaren oinarria askok uste duten baino sinpleagoa da: autoa hartu, eta norberaren gustura moldatu. Hala ere, gauza guztietan bezala, lau gauza aldatzetik autoa goitik behera moldatzera pasa daiteke. Azken baten, *tuning*-ak ez du-eta mugarik.

Askok ez dituzue ezagutuko auto horien gidariak, baina seguru asko, auto horiek herriko kaleetan gora eta behera ikusi dituzue begiratu bat, behintzat, eman diezuela. Askok ez dute ulertzen *tuning*-aren zergatia, eta beste askok, ez ulertzeaz gain, lelokeria hutsa dela esango dute.

Komentario horiek behin eta berriro entzun behar izan dituzte Tomas de la Cruz eta Victor Anton arrasatearrek, baina kasurik ez diete egiten dagoeneko. Argi daukate dirua gastatzeko hainbat aitzakia egon daitezkeela, eta eurena hau da, *tuning*-a.

Tomas de la Cruz-ek Citroen Saxo autoa dauka. Autoa goitik behera moldatu du: neurrira egindako Braid markako hagunak, pneumatiko zabalak, karrozeria moldatua, Obus markako atzerako ispiluak, aleroi moldatua, lasterketako bolantea, larruzko tapizeria eta beste hainbat aldaketa egin dizkio autoari. Hori gutxi izango balitz, autoa birritan margotu dir dagoeneko, eta autoaren kolorea da gauza deigarrietako bat. Ez da batere erraza autoa zein koloretakoa den argitzea, eguzkiarekin kolorea aldatu egiten da-eta.

Victorren Renault Megane autoa ere ikusgarri dago. Joan den astean atera zuen lehenengoz tailerretik, eta pozik dago autoaren itxura berriarekin. Victorren autoa bost atekoa da, eta karrozeria moldatzea gaitzagoa izan da. Victorren autoko hagunak ere Braid markakoak dira, eta pneumatiko zabalak ditu. Autoaren kapota, karrozeria guztia bezala, moldatuta dago eta Ferrari F-50 autoaren itxura daukan kapota jarri dio. Beltza da, eta autoaren barruko aldeko hainbat detalle gorritz margotuta daude.

ALDERDI ONAK ETA TXARRAK

Gauza guztietan moduan, autoa horrela edukitzeak alderdi onak eta txarrak ditu. Aldekoak, jakina, autoaren itxura eta ikusgarritasuna. Arrasateko bi *tuning*-zale horiek harro baino harroago daude euren autoekin.

Alderdi txarrak ere asko dira, eta Tomas-ek azaldu dizkigu gehienak: "Zaletasun garestia da, hori argi dago, baina diruak baino gehiago hartzen diren nahigabeek min handiagoa ematen dute. Horrez gain, autoa horrela



Tomasek eta Hectorrek goitik behera moldatu dituzte Citroen Saxo eta Renault Megane autoak.

"Askok eskiatzen edo parrandan gastatzen duten dirua guk autoan gastatzen dugu"

tuneatzeko, tailerrean lan handia egin behar da, eta beti dagoenez zerbait aldatu edo hobetzeko, askotan ez dugu autoa erabili ere egiten". Tomas hainbat kontzentziotan izan da, baina Hectorrek oraindik ez du joateko

"Argi daukagu autoari zerbait jartzearen ez garela zapatuan etxean geratuko"

aukerarik izan. Tomas-ek kontzentrazioetako giroa atsegin du: "Jende mordera ezagutzeko aukera egoten da, baita beste auto batzuk ikusteko ere. Azken baten, zaletasun berbera daukan jendea elkartzen da han". Tomas-ek,

"Inguruko errepideak ez daude ondo, eta horrelako autoekin argi ibili behar da"

ordea, autoa puntu-puntu izan behar du *tuning* txapelketa batera joateko, bestela, gurago du ez joatea: "Horretarako oso maniatikoa naiz. Autoa ez badago gertu, gurago dut etxean geratu. Azken baten, autoak kalean ego-

ten dira, eta beti dago zerbait konpontzeko. Dirua daukatenez auto bi izaten dituzte, eta *tuning*-a daukatena txapelketetarako bakarrik erabiltzen dute. Horrela normala da autoa beti ondo edukitzea. Guk, ordea, beti daukagu zerbait konpontzeko, hemengo errepideak ere ez dira-eta gure autoendako egokienak".

Jende askok ez du ulertzen autoan horrenbeste diru gastatzea; hauxe erantzuna: "Etxean bizi garenez, dirua eskiatzen joan beharrean autoan gastatzen dugu. Hala ere, ez daukagu gosea pasatzeko asmorik autoari zerbait jartzearen, badakigu noraino iritsi gaitzekin". Gastatu duten diruarekin lasai asko eros dezakete Audi edo BMW markako autooren bat: "Aukeran, nire autoa baino gehiago, gurago dut BMW bat; argi dago. Baina auto hori ere *tuneatu* egingo nuke, hortaz..."

Bi gazte horiek badakite dagoeneko zer egingo dioten autoari hurrengo. Victor: "Autoaren barruko alde aldatu gura dut, autoak duen kolore bereko tapizeria jarri gura diot. Horrez gainera, hainbat konponketa egin gura dizkiot, baina ez dut uste askoz gehiago egingo diodanik".

Tomas-ek, berriz, atsekabe ederra hartu zuen Aste Santuan, esku-luze batek musika ekipoa lapurtu zion-eta. Hori konpontzeaz gain, autoa berriro margotzeko asmoa dauka Tomas-ek: "Azkeneko aldirian gaizki margotu zidaten autoa, eta berriro joan beharra daukat, ea behingoz...". Autoa horrela prestatzeko, pazientzia handia behar da. Edozelan ere, gauza bat biziki atsegin denean, diruak eta denborak ez ei daukate horrenbesteko garrantzirik: "Behin edo behin guztia pikutara bidaltzekotan egon naiz," dio Tomas-ek, "baina ez nintzateke gai izango autoa saltzeko". *Tuning*-a berritzea da, eta horretarako dirua behar da. "Ehunka gauza egin ahal zaizkio, eta gauzak berrituz joan. Orain, DVDA eta pantaila bat jartzeko asmotan ere bagabiltza. Izan ere, honek ez dauka amaierarik".

'Tuning'-a: askok begi txarrez ikusten duten zaletasuna

Autoa norberaren gustura moldatzeko zaletasuna aspaldikoa da, baina *tuning*-a azken hiru urteetan sartu da estatuan. Euskal Herrian ere indarra hartzen ari da, baina oraindik *boom*-a etortzeaz dago. *Tuning*-ak eta diskotekek nolabaiteko harremana daukate, eta auto moldatuenak Euskal Herriko diskoteketako aparkalekuan aurkituko dituzte zapatuguetan. Hala ere, badira salbuespenak. *Tuning* kontzentrazioetan ere

bakalao musika izaten da nagusi, baina *tuning*-a hori guztia baino gehiago da. Normala da askok ez ulertzea. Hortik lelokeria bat dela esatera asko dago, baina errespeturik ez daukanak ez du ez *tuning*-arekin ez beste edozerekin ere izango. Azken baten, inori ez dio minik egiten gutxi batzuek euren autoak prestatzea. Tomas-en esanetan, jendeak aurreiritzi asko ditu, baina hori ezjakintasuna baino ez da. Ertzainek ere nahiko lan

ematen ei dute, horrelako auto bat ikusi bezain pronto gainean dira-eta. Ertzainek ere ez dute, nonbait, zaletasun hori begi onez ikusten. "Edozelan ere, ertzainekin momentu onak ere izan ditut", dio Tomas-ek. "Behin baino gehiagotan, multaren bat jartzerako orduan, zein auto den galdetu behar izan didate. Eta beste baten ere buruhauste ederrak izan zituzten ertzainek, autoa zein koloretakoa zen erabakitzeke".


Merkataritza Ganberako ziurtagiria eman diote Ibai Arte elkarteari

UBANE MADERA

Eurora egokitzeko egin duten ahailegin eredugarria aitortzeko saria eman dio Gipuzkoako Merkatarien Ganberak Arrasateko Ibai Arte elkarteari. Elkarteko kideak "harro daude" lortutako sariarekin.

Azken hiruzpalau urteotan euroa egokitzeko egin duten lanagatik saria jaso du Arrasateko merkatarien elkarteak. Ibai Arteko presidente berri Jon Arriaranen esanetan, "sari horrekin harro gaude, ahalegin handia egin dugulako. Agendak, egutegiak...banatu ditugu herritarren artean, guk geuk ikastaroak egin ditugu, eta bereziki, urtarrila eta otsaila oso gogorak izan dira". Jon Arriaranen ustez, dagoeneko gaindituta dago eurora egokitze-lan hori, baina oraindik ere, prezioak eurotan zein pezetatan ipintzen dituzte, herritarrei erraztasunak emateko.

Horrez guztiaz gain, Jon Arriaranek jakinarazi digunez, aurtun, Ibai Artek hamar urte beteko ditu. Hori ospatzeko ekitaldiak egingo dituztela iragarri du; merkatarien elkartearen ohi-turari jarraituta, herritarrendako ekitaldiak, hain zuzen ere.



Jon Arriaran, Ibai Arteko presidentea, elkarteari eman dioten sariarekin.

Etorkizunari begira, berriz, helburuak argi dituztela gaineratu digu Arriaranek. Merkatarien informatizazioa da helburu nagusia; baina horrekin batera, sortzen diren arazoei aurre egin beharko dietela ere gaineratu digu. Esaterako, azken hamar urteotan moduan, Arrasatera erosketak egitera etortzen den jendearendako aparkalekuak eskatzen jarraituko dute; peatonalizazioak eragindako herritarren

ren kekin ere bat egin du elkarrekin; herriko kaleetan segurtasun handiagoa izatea ere eskatu dute, eta herriko elkartei, zelanbait, laguntza eman gura diete.

Bestalde, Jon Arriaranekin batera, honako boskoteak osatuko du Ibai Arteko Zuzendaritza: Angelines de la Maza (*Modas Maza*), Ines de Tena (*Elkoro*), Mari-sol Iriarte (*Kili-Kolo*), Alicia Carrasco (*Klas*) eta Maria Elena Fernández (*Zubiaga Bitxitegia*).

Zenbait dirulaguntza eskatzeko epea zabalik dago

UBANE MADERA

Hirugarren Munduarekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeendako eta gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten taldeendako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago dagoeneko.

Zenbait dirulaguntza eskatzeko epea zabaldu du Arrasateko Udalak. Batetik, Hirugarren Mundurako lankidetzako proiektuak egiten ari diren gobernuz kanpoko erakundeetara zuzendutakoak. Bestetik, gizarte gaiak lantzen dituzten talde eta erakundeetara zuzendutakoak. Bietako talderen baten barruan dauden elkarteek maiztaren 17ra arteko epea izango dute dirulaguntza horiek eskatzeko.

BALDINTZAK

Baina jakina, dirulaguntzak eskatzeko, derrigorrezkoa izango da gutxienezko baldintza batzuk betetzea. Horrela, gobernuz kanpoko erakundeen kasuan, Hirugarren

Munduko herritarren baldintza sozioekonomikoak hobetzen laguntzeko proiektuak landu beharko dituzte. Horrekin batera, horrelako ekimenetan esperientzia badutela ere erakutsi beharko dute; eta jakina, irabazi asmorik gabeko taldeak izan beharko dira, besteak beste.

Gizarte Zerbitzuen alorrean lan egiten duten taldeen kasuan, berriz, dirulaguntzak jaso gura gero, egin gura duten lana Arrasaten bete beharko dute. Adibidez, dirulaguntza jaso dezakete: hitzaldiak, prestakuntza ikastaroak, ikerketak edo talde berezien gizarteratzean laguntzen duten ekimenak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko taldeek.

Dirulaguntzak eskatzeko inprimakiak bai eta informazio osoa Udaletxean dago. Hortaz, interesatuek hara joatea besterik ez dute.

Horren harira, oraingo aste-ko Gobernu batzordeak hogeimila euro inguru onartu ditu kartzelan dauden arrasatearren senitartekoei laguntzeko.

Edukiontzien ondoko zaborren arazoa konpontzeko lanean



IKER BARANDIARAN

Oraindik ere, edukiontzien ondoko zabor mardoa uzten dute.

UBANE MADERA

Edukiontzia ipini arren, oraindik ere jendeak zaborra lurtean uzten du. Mankomunitateak zabor hori zeinek batu proposatu dio Udalari. Udalaren ustez, berriz, eskaintako zerbitzua ez da nahikoa.

Debagoieneko Mankomunitateak Arrasateko Udalari jakinarazi dionez, edukiontzien inguruan agertzen diren zaborrak batzeko akordioa lortu dute. Horren arabera, zabor hori batzeko ardura Mankomunitatearena da, eta Mankomunitateak zaborra batzen duen enpresari, FCCri, exijituko dio zabor horiek ere

batzea, biltzea egunetan. Horrela, kartoia, papera eta hondakinak batu beharko ditu FCCk. Eta edukiontzia batzea, berriz, CESParen ardura izango dira.

Arrasateko Udalak, baina, ez du arazoaren konponbidea horren argi ikusten. Mankomunitateari adierazi dionez, akordio horrekin ez dituzte konponduko udalerririk dituen beharrak. Alde batetik, edukiontzia gutxiegi ipini dituela uste du Arrasateko Udalak, eta horrexegatik pilatzen dela zaborra kalean. Bestetik, Udalaren usteetan, Mankomunitateak egunero-egunero ipini beharko lituzke zaborrik ez egoteko neurriak, eta ez bakarrik zaborra biltzeko egunetan.



Herriko kutsadura neurtzeko kabina berriro ere abian

Konpondu dute Arrasateko kutsadura neurtzeko kabina. Laubide plazan dago, eta Arrasateko Udaleko Ingurumen Saileko teknikari Rafa Ugartek adierazi digunez, jendea kabinaren gainera igozten zela-eta izorratu zen. Orain, kabinaren goiko alde altuago ipini dute, eta gainera, hobeto babestu dute. Hortaz, berriro ere lanean da kabina, herriko kutsadura neurtzen.

Orain dela pare bat urte ipini zuen Udalak kabina hori. Besteak beste, herrian dagoen sulfuro dioxido, nitrogeno dioxido eta karbono monoxido kopuruak neurtzen ditu, baita ozonoa ere. Kabina horretan orain arte batutako datuek erakusten dutenez, Arrasateko kutsadura maila normala da, eta ez dago larritzeko arrazoirik. /UBANE MADERA


Sukaldean erabilitako olioak batzen hasiko dira hil honen amaieran

UBANE MADERA

Apirilaren 26tik aurrera, etxean erabilitako olioak batuko dituzte Arrasaten. Helburua da olio hori harraskatik bota beharrean, birziklatu eta biodiesel egiteko erabilitea. Hilean behin batuko dute olioak, Laubide plazan eta Maxi-Eroskiko aparkalekuan.

Ecogras enpresa arduratuko da olioak batzeaz. Hain justu ere, orain dela zortzi urte hasi ziren Arrasaten eta inguruetan erabilitako olioak batzen, baina ostalaritzan erabilitakoak bakarrik batu dituzte orain arte. Berrogeita bi negoziok parte hartu izan dute ekimen horretan.

Baina kontua da askoz ere olio gehiago erabiltzen dugula etxeko sukaldeetan. Ecograsek emandako datuen arabera, landare-olioaren %70 etxean kontsumitzen dugu. Herritar bakoitzak sei-zazpi litro kontsumitzen ei ditu urtero; hortaz, Arrasaten, 150.000-175.000 litro. Gainera, olio erabili eta gero, harraskatik botatzen dugu, eta horrek oso eragin kaltegarria du: ura kutsatzeaz gainera, arratoiengatik dakar, besteak beste, arratoiak olioarekin elikatzen dira-eta.



Zortzi urte daramatzate ostalaritzan erabiltzen diren olioak batzen.

BIODIESELA

Hori guztia kontuan hartuta, Udalak iaz etxeko olioak batzeko hitzarmena sinatu zuen, eta orain, abian ipiniko du. Esan bezala, apirilaren 26tik aurrera hasiko dira olioak batzen.

Hilean behin batuko dituzte olioak, hileko azken egubakoitzean, eta herriko bi lekutan: Laubide plazan, 09:00etatik 13:00etara eta Maxi-Eroskiko aparkalekuan, 16:00etatik 20:00etara.

Gero, olio hori biodiesel egiteko erabiliko du Ecogras enpresak. Izan ere, biodiesel Diesel motordun ibilgailuetan erabili ahal izango da, eta gainera, gasolioarekin parekatuz gero, askoz ere gutxiago kutsatzen du.

Urtebetez jardungo du Ecogras enpresak erabilitako olioak batzen. Horixe da Arrasateko Udalarekin sinatu duen hitzarmena. Denera 5.556,48 euro kostatuko da zerbitzua.

Etxean ohitura onak gordetzeko, Udalaren aholku praktikoak


UBANE MADERA

Laster, Arrasateko etxebizitzetara informazio-orri bereziak bidaliko ditu Udalak. Hain justu ere, etxean ohitura onak gordetzeko aholkuen zerrenda bana bidaliko die Udalak herritarrei. Ura eta energia aurreratzeko gomendioak emango ditu, esate baterako.

Ingurumenean eragin txikiagoa izateko eta herritarroi dirua, denbora eta ahalegina aurrezten laguntzeko, gomendioak ematea erabaki eta onartu du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Behin baino gehiagotan entzun izan ditugun gomendioekin batera, bitxiago batzuk ere emango ditu Arrasateko Udalak. Orain, gomendio horiek eskuorri baten batu eta herritarren etxebizitzetara bidaliko ditu Udalak.

URA ETA ENERGIA AURREZTEKO

Adibidez, ura eta energia aurrezteko gomendio zerrenda luze bat emango du: jantzi eta ontzi garbigailuak ur hotzarekin erabiltzea; ate zein leihoak ondo ixtea, kanpoko hotza sar ez dadin; sukaldean ari garenean lapikoak estaltzea; bainatu beharrean dutxa hartzea; berogailuaren tenpera-



Ura aurrezteko, askotariko gomendioak emango ditu Udalak.

tura neurgailua 60º graduan ipintzea, hortik gora energia galtzen da-eta; platerak, eta abar, txorrota itxita dugula garbitzea edo etxetresna elektriko ekologikoak erabiltzea. Horrelakoak irakurri ahal izango ditugu Udalak bidaliko dituen esku-orrietan.

GARBIKETA LANAK

Bestalde, garbiketarako egiteko ere badago aholkurik. Adibidez, ozpina oso ona ei da komuna desin-

fektatzeko. Bikarbonatoak, berriz, harraskak, lauzak eta sukaldeko eta komuneko marmolak ezin hobeto garbitzen ei ditu. Horrekin batera, etxeko libiba eta xaboa egiteko errezetak ere ematen dituzte, baita jogurta egiteko ere. Bukatzeko, egurrezko altzariak babesteko eta zomorroei aurre egiteko gomendio praktikoak ere emango ditu Udalak. Orain, abian ipintzea izango da norberareñ lana.

LABUR

Udalak onetsi egin du Makatzena auzoan 60 garaje egiteko hitzarmena

Makatzena auzoaren urbanizazioaren barruan, garaje itxiak eraikitzeke asmoa du Udalak; hain zuzen ere, oraingo asteko Gobernu batzordeak baiezkota eman dio Makatzena Etxegintzak SL enpresarekin sinatu beharreko hitzarmenari. Horren arabera, Makatzena auzoaren atzeko aldean 60 garaje eraikiko dituzte. Udalak 150.253 euro inbertituko ditu egitasmo horretan. Horrela, Makatzena auzoan dagoen aparkaleku faltaren arazoa konpondu gura du Udalak. Orain, lan horiek egiteko proiektuan hasi beharko dira lanean.

Larrialdiei aurre egiten erakusteko ikastaroa antolatu du Gurutze Gorriak

Debagoieneko Gurutze Gorriak Sorospen ikastaroa antolatu du. Astelehenean hasiko da, hilaren 22an, eta maiatzaren 10era artekoa izango da. Institutuan emango dute ikastaroa, Arrasaten, astelehenean egubakoitzera, 19:00etatik 21:00etara. Interesa dutenek 943 76 55 76 telefonora deitu beharko dute. Ikastaroa 60 euro kostatuko da. Gurutze Gorriaren helburua da jendea gai izatea edozein larrialdiri aurre egiteko.

Bestalde, elkarte horrek ibarreko jendeari eskerrak eman gura dio azaroan eta abenduan egindako diru-bilketan laguntzeagatik.

Etorkinendako etxebizitzak aurkitzeko kanpaina hasi du Caritas erakundeak

Giltza zuk daukazu lelopean, etorkinendako etxebizitzak aurkitzeko kanpaina hasi du Caritasek Gipuzkoan. Arrasateko taldeak ere bat egin du kanpaina horrekin. Hutsik dauden etxebizitzak jabeek etxebizitza horiek etorkinei errentan emateko eskatuko die; horrekin batera, errenta oso altuak ez ipintzeko ere eskatuko die Caritasek. Izan ere, etxe bat edukiz gero, etorkinak errolatu egin daitezke; eta horren ondorioz, gero, giza laguntzak, mediku txartela eta antzekoak eskatzeko eskubidea izango dute. Horrela, etorkinak errazago integratu ahal izango dira gure gizartean.



Altamirako jaiak bihar, zapatua

Altamirako auzokideek auzoaren jaiak ospatuko dute bihar, zapatua. Txapligu eta gaitariekin ekingo diote. Gero, 11:30ean, umeendako jolasak izango dira plazan eta 13:00etan, auzoko taberna zabalduko dute. Bestalde, 16:30ean, txapliguek umeendako marrazki lehiaketa iragarriko dute. 18:00etan, txokolata-jana izango da eta ordu erdi geroago, auzoko erretiratuei omaldi egingo diete. 19:00etan, berriz, meza izango dute San Frantziskoko parrokiari; 19:15ean, buruhandien txanda izango da, eta Txinparta taldearen erromeriarekin bukatuko dute jaiak.



AGUR-AFARIA 'DALTON' ANAIETAKO ALTUENARI

Joan den astean Kakajauri koadrilakoek ezkondu aurretiko agur-afaria egin zioten Roberto Gomezi. *Abere*-ek agur esango dio bakarrik egoteari, eta *Dalton* anaietako altuenak formal-formal ibili beharko du aurrerantzean. Agur-afaria

Marietan egin eta gero, Gasteizera joan ziren parranda egitera, eta *cowboy*-ak argi utzi zuen nor den pistoladun azkarrena. Eskerrak gau hartan ez zen *Lucky Luke* azaldu, bestela, nahiko lan izango zuen eta *sheriff*-ak. Zorionak, Roberto!

'TARZAN'-EN BILA ?

ONDOKO argazkian azaltzen den *Dalton* anaietako batekin ezkontzera animatu dena Bakarne Ibaibarriaga da, argazkian makila daramana. Bakarneri ere ezkondu aurretiko agur-bazkaria egin zioten, baina horiek zuzenean joan ziren Gasteizera. Ezkonbidaian izango duen girora egokitzen joateko mozarrotu zuten horrela lagunek, eta gau osoan *Tarzan*-en bila ibili baziren ere, *Chita* baino ez zuten aurkitu. Parranda Gasteizen hasi bazuten ere, Arrasateraino etorri ziren gaueko dantzaldiak egiteko asmoz. Zorionak, Bakarne!



ARRASATEARRAK BIGARREN IBARRAN

Ibarran jokatu zen Euskal Kantu Txapelketako kanporaketan, Arrasateko Xarma taldea bigarren sailkatu zen. Itxuraz arrakasta polita izan du The Beatles taldearen *Let it be* abestiaren moldaketak. Arrasatearrek *Ez etsi* izendatu dute abestia, eta

abesti hori Arrasate Irratian entzun ahal izan genuen, zuzen-zuzenean. Hurrengo txanpa Beasainen gainditu beharko dute Arrasateko abeslariak, eta emaitza ona eskuratzen badute, Euskal Kantu Txapelketako finalean izan daitezke arrasatearrak.

Iturria: "DIARIO DEL MOTOR" aldizkaria

DIARIO DEL MOTOR

NOTICIAS • MERCADO • INDUSTRIA • ENTREVISTAS • NOVEDADES • CIFRAS



FORD FOCUS, FIDAGARRITASUNEAN AURRENA

Alemanian, Ford Focus autoa liderra da kalitatean eta fidagarritasunean. Horixe dio automobilaren industriaren kontrol ikuskapena eta gainbegiratzeko teknikoa egiten dituen TÜV erakundearen urteko txostenak. Era berean, txosten horrek dio Ford Focus autoak presentzia geroago eta handiagoa duela Europako errepideetan eta geroago eta presentzia txikiagoa tailerretan. Hainbat froga egin eta gero, emaitza izan da Ford Focus autoak ehuneko bateko akats portzentajea besterik ez duela; azken hamar urteotan TÜV erakundeak erregistratu duen



portzentajerik txikiena. TÜV txostena erabilitako autoen inguruko informazio gida bat da. Txosten horrek autoak sailkatzen ditu "akats txiki" eta "akats nagusi" arabera. Nahiz eta Japoniarrek oraindik ere talde nagusia izan "akats txiki"-etan, aurretik, Ford Focus autoarekin, Alemaniako fabrikatzaile batek lehen postua lortu du urte bat eta hiru urteko antzinatean duten autoen artean. Ondorengo antzinatean Toyota da lidertza. Eta Mercedes SL da lehena 8 eta 9 eta 10 eta 11 urte bitarteko antzinatean duten taldeetan.

MUGARRI

Araba etorbidea • ARRASATE • 943 79 07 44

ESKUBALOIA

Oraingo asteburuan, Gipuzkoako Kopa txapelketa hasiko da

Arrasateko senior mailako bi taldeek etxean jokatu dute Kopako lehen jardunaldia

XABIER URZELAI

Liga txapelketa amaituta, eskubaloiko taldeek Gipuzkoako Kopako lehenengo jardunaldia jokatu dute oraingo asteburuan. Bigarren taldeak Musakolan jokatu du domeka eguerdian, eta talde nagusiak Iturripen izango du norgehiagoka.



JULEN IRIONDO

Gazte mailako jokalariek domekan jokatu zuten Ligako azken partidua.

jokatu zuten Bergararen kontra. Derbi parekatua izan zen, lehenengo minutuetan bai, behintzat. Hala ere, minutuak aurrera egin ahala, Bergarak aldea hartu zuen eta deskantsura 9-15 joan ziren.

Bigarren zatiko lehenengo minutuetan etorri zen Arrasateko taldearen erreakzioa. Etxekok gora egin zuten, eta aldea murriztu zuten: 16-17. Gero, paretotasuna izan zen nagusi, baina

22-23 jarri ondoren, Bergara taldeak gora egin zuen.

Kanpoko taldeak hainbat goleko aldea hartu zuen, eta etxekok, estutu guran, goialdean hasi ziren presionatzen. Joko mota horrek ez zuen emaitza batere onik ekarri, eta kanpotarrek erraz egin zituzten hainbat gol. Mondragoetarrek ezin izan zuten ezer egin, ligako azken partidua bergarrendako izan zen: 25-31.

Oraingo asteburuan, kiroletan, eskubaloia berriro ere protagonista bilakatuko da, Gipuzkoako Kopa txapelketa hasiko da-eta. Partiduak domeka eguerdian jokatu dira. Senior mailako talde nagusiak Iturripen jokatu du eguerdiko hamabietan, Zarautz taldearen kontra. Senior mailako bigarren taldeak, berriz, ordu erdi lehenago jokatu du, goizeko hamaika eta erdietan, Musakolan. Kontrarioa Donostiako Egia taldea izango da, eta Arrasateko bi taldeek ere gogor egin beharko dute lan goiko mailatik jaitsi berri diren bi talde horiei irabazteko.

GAZTE MAILAN, BERGARA NAGUSI

Joan den astean, Arrasateko gazte mailako eskubaloiko taldeak Liga txapelketako azken jardunaldia

Ziklista gazteak ondo ibili dira asteburuan izandako lasterketetan

XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan, hainbat lasterketa izan dira Gipuzkoako errepideetan. Gure txirrindulari gazteak, besteak beste, Deban, Zegaman eta Oñatin egin diren probetan izan dira, eta maila polita erakutsi dute.

Ibarreko txirrindulari gazteak errepideetan gora eta behera ibili ziren joan den asteburuan. Fagorreko gazte mailako txirrindulariak Debako Amaiak Bat sarian parte hartu zuten. Guztira 138 ziklista izan ziren 86 kilometroko ibilbidea egiteko prest. Fagor taldeko bost txirrindulari izan ziren proban, baina bik bakarrik amaitu zuten proba: Raul Blázquez hamazazpigarren izan zen eta Amets Elustondo, berriz, hamazortzigarren izan zen.

JMA TALDEKOAK, ZEGAMAN

Zapatu arratsaldean bertan, JMA taldeko kadeteek Zegamako XVIII. Santa Cruz Lasterketan hartu zuten esku. Arratsaldeko lau eta erdietan hasi zen lasterketak 49 kilometro izan zituen eta 89 lasterkari izan ziren lehian. Lasterketan hainbat ihesaldi izan ziren, baina azkeneko kilometroetan, Lierniko gaina iritsi zenean, banatu zen tropela. Lasterketako azkarrena Loinaz taldeko Ruben Zabaleta izan zen. JMA taldetik Jon Rodríguez eta Jon Lete izan ziren lasterketan. Jon Rodríguez hamazortzigarren postuan iritsi zen helmugara, eta Jon Lete hamaika postu atzerago iritsi zen, hogeita bederatzigarren postuan, hain zuzen ere.

Alebin eta infantil mailetakoz ziklistek ere lasterketa izan zuten zapatu arratsaldean. Proba Oña-

tin jokatu zuten, eta esan beharra dago Eskoriatzako Esko Sport taldearendako denboraldi hasiera izan zela.

Lasterketako zirkuitua San Lorenzo auzoan zegoen. Alebin mailakoak izan ziren lehenengo aritu zirenak, eta Esko Sport taldeko Xabier Sierra gaztetxoak lasterketa polita egin zuen. Atzeko postuetatik irten eta lasterketa buruan izan zen arazo mekaniko bat izan zuen arte. Gero, infantilen lasterketa jokatu zen. Berrogeita bi lasterkari elkartu ziren zirkuituari zortzi itzuli emateko asmoz. Lasterketa oso azkarra izan zen, eta aurrean izan zen ziklista taldeak sekulako sasoi erakutsi zuen. Esko Sport taldeko Julen Galiano eta Markel Diego zazpigarren eta zortzigarren postuan iritsi ziren helmugara, hurrenez hurren.

TRIATLOIA

Oraingo asteburuan, Zuhaitz Ezpeleta eta Jon Aperribai Euskal Selektioarekin izango dira

Gasteizko Duatloitik errekupeatzeko asti handirik gabe, bi atleta arrasatear horiek Euskadiko Selektioarekin izango dira oraingo asteburuan, Lugon. Aurten, Galizian jokatu da Espainiako Autonomien Arteko Duatloi Txapelketa, eta arrasatearrak hantxe izango dira lehian.

Oraingo denboraldian, Zuhaitz Ezpeletak eta Jon Aperribaik sasoi beteandaudela erakutsi dute, eta bi atleta horiek orain arte egindako probetan goiko postuetan ibili dira.

PILOTA

Bihar hasiko den Koadrilen Arteko Txapelketan 29 bikote izango dira lehian

Bihar, zapatua, hasiko da Koadrilen Arteko Pilota Txapelketaren bigarren aldia. Joan den urtekoa arrakastatsua izan bazen, aurten bikote gehiagok eman dute izena. Guztira, hogeita bederatzik bikote arituko dira, lau taldetan banatuta. Lehenengo taldean zortzi bikote izango dira eta gainerakoetan, zazpi bikote. Antolatzaileak pozik daude txapelketak izan duen harrerarekin. Txapelketaren berri ARRASATE PRESSEn izango duzue astero-astero.

FUTBOLA

Mondrak ondo jokatu irabazi zion Gasteizko Aurrera futbol taldeari

Mondra taldeko neskek igoera faseko lehenengo garaipena eskuratu zuten domekan Atxabalpen. Aurkaria ez zen nolana hokoa, Gasteizko Aurrera taldea, baina arrasatearrak ez ziren kikildu, eta konturatu zirenerako etxekoak aurretik ziren markagailuan.

Gasteizko taldeak oso jokalaria onak ditu. Arrasatearrek, ordea, taldekako lana eginez lau eta hiru nagusitu ziren. Oraingo asteburuan, Gure Ametsa taldearen kontra jokatu dute.

FOTOKIROLA



Jon Aperribai hirugarrena Gasteizen

Joan den astean jokatu zen Gasteizko Mendiko Duatloian, Jon Aperribai arrasatearrak podiuma eskuratu zuen. Arrasatearra hirugarren iritsi zen helmugara, eta beste behin, Antxintxika Debagoiena Taldea izan zen onena. /X.U.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ARRASATE HIRIA XAKE TXAPELKETA

Lehenengo jardunaldian, hamarretik seik berdinketa adostu zuten

Aurreikuspenen arabera, aurtengo aldia aurreko urtekoa baino parekatuagoa izango da

XABIER URZELAI

Joan den egubakoitzean (hilak 12), Arrasate Hiria Xake Txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu zen, eta gauza bat argi geratu zen: uste bezala, aurten berdintasuna izango da nagusi. Gaur, hilak 19, txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko da.

Guztira bost partida jokatu zituzten, eta hiru partidatan xakelariak berdinketa sinatu zuten. Hamalau urteko Borja Zamardibe iruindarrak sekulako abilezia erakutsi zuen, eta orain dela hiru urte Gipuzkoako txapeldun izan zen Jesus Mari Agirretxe mendean hartu zuen. Cristobal Limeres gernikarrak ere ez zuen kale egin, eta txapelketako faboritoak nahiko erraz irabazi zion San Andres Taldeko Isidro Ruizi. Gernikarrak *saemisch* batekin hartu zuen mendean Oñatin bizi den bilbotarra. Karen San Pedro eta Gerardo Fernándezen arteko zein-gehiagokan ez zen lehia handirik egon, eta biek ere berehala adostu zuten berdinketa.

Arrasateko San Andres Tal-



ARRASATE PRESS

Gaur arratsaldean, Arrasate Hiria Txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko da.

deko Josu Tornay eta Luis Angel Ortega aurrez aurre izan ziren; partida ikusgarria izan zen, eta haiek ere berdinketa adostu zuten. Jose Javier Garridok eta Jose Manuel Hernandok jokatutako partidaren ere emozioa ez zen falta izan. Bi jokalariek hainbat hutsegite egin eta gero, Hernando mondragoetarrak berdinketa

proposatu zion, eta bilbotarrak onartu egin zuen.

Txapelketa irekian, bestalde, Iban Manso arrasatearra bikain ibili zen. Ibanek eman zuen sorpresa handiena, Ugarte bergararra mendean hartuta. Gaur ere, txapelketa bi horietako partidak izango dira jokoan, arratsaldeko zazprietatik aurrera. /X.U.

FOTOKIROLA



Koka Junior Basati eta Aurrera Bolie, aurreko asteburuko golegileak

Joan den asteburuan bi talde horien partiduetan golak barra-barra izan ziren. Argazkian azaltzen diren Koka Junior Basati taldeko jokalariek hamahiru gol egin zizkieten Usotz Potroak taldekoei, baina azken horiek jokalaria bat gutxiagorekin jokatu zuten, hortaz, nahikoa egin zuten. Aurrera Boliek, bestalde, hamaika gol egin zizkion IKP taldeari. Oraingo asteburuan, Koka Junior Basatik Bikain Akademiaren kontra jokatu beharko du, eta Aurrera Boliek Irati STS taldea izango du aurrez aurre. Bi taldeok gogotik izerditu beharko dute joan den asteburuko lortzeko. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Iritzu Taberna - AC Surcos	5-5
Bin Laden - Etxerat	4-6
Koka Junior Basati - Usotz Potroak	13-2
Bikain Akademia - Goma2	3-6

B MULTZOA

Azkena You Know - Betraye	8-1
Rayo Aldeano - Chapime Dribling	6-5
Aurrera Bolie - I.K.P.	11-3
Irati STS - AT Celaya	5-6

PARTIDUAK

APIRILAK 20, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Bin Laden - Goma2. Antolakuntza
11:00: Rayo Aldeano - AT Celaya. Antol.
12:00: Aurrera Bolie - Irati STS. Antol.
13:00: Azkena YK - Chap Dribling. Antol.
16:50: I.K.P. - Betraye. Antolakuntza
18:00: AC Surcos - Usotz Potroak. Antol.

APIRILAK 21, DOMEKA

11:50: Etxerat - Iritzu Taberna. Antol.
13:00: KJ Basati - Bikain Akad. Antol.

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	6	3
2. AC Surcos	5	3
3. Koka Junior Basati	4	3
4. Goma2	4	3
5. Bin Laden	3	3
6. Iritzu taberna	2	3
7. Bikain Akademia	0	3
8. Usotz Potroak	0	3

B MULTZOA

	P	J
1. Azkena You Know	5	3
2. Chapime Dribling	4	3
3. Betraye	4	3
4. Rayo Aldeano	3	3
5. AT Celaya	2	3
6. Aurrera Bolie	2	3
7. Irati STS	2	3
8. I.K.P.	2	3

JOAN DEN ASTEBURUAN, EURIA PROTAGONISTA

EGURALDI TXARRAREKIN, ZAILA ETA ARRISKITSUA FUTBOLEAN EGITEA

Joan den asteburuan eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta zorua bustita egoteaz gain, zuhaitzetatik eroritako hostoek ere ez zuten mesede handirik egin. Hori dela eta, hainbat partidutan jokalaria askok nahikoa lan izan zuten zutik egoten. Ea oraingo asteburuan eguraldiak erraztasunak jartzen dituen futbitoan egiteko.

ANTOLAKUNTZAREN ARGAZKIEI AURPEGI ONA

Zaldibarko antolakuntza argazki artxibo bat egin guran dabil, eta datozen asteburuetan, antolakuntzakoren bat ibiliko da argazkiak ateratzen. ARRASATE PRESSek aprobetxatu egingo ditu argazki horiek. Oraingo asteburuan, besteak beste, Koka Junior Basatikoei tokatu zaie ate azpian jartzea. Betiere, aurpegi onarekin!

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Caja Rural Ardoi - Kenci Arrasate	Seniorrak. Zapatuan, 20:00. Zizur Nagusia.
Kenci Arrasate - Ind Lagunak	Seniorrak. Zapatuan 16:00. Musakola.
Andraitz - Kenci Arrasate	Jun mut. Zapatuan 17:45. Legazpi.
Internacional B - Kenci Arrasate	Jun neska. Zapatuan 19:30. Donostia.

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Egia	Seniorrak. Domekan, 12:00. Iturripen.
Arrasate - Zarautz	2. seniorrak. Zapatuan, 11:30. Musakolan.
Arrasate - Pulpo	Gazteak. Domekan, 10:00. Iturripen.

FUTBOLA

Mondra - Soraluze	Erregionala. Zapatuan, 17:00. Atxabalpe.
Bergara - Mondra	Ohor gazt. Zapatuan, 16:30. Ipintza.
Amaroz - Arrasate	Big gazt. Zapatuan, 16:00. Tolosa.

Arrasate - Mariaren Bihotza

Ohor Kadete. Zapatuan, 12:00. Atxabalpe.

Arrasate - Lengokoak

Infantilak. Domekan, 11:00. Atxabalpe.

Gure Ametsa - Mondra

Neskak. Zapatuan, 17:45. Irun.

EMAITZA

FUTBOLA

Erregionala. Kilimon - Mondra	2-1
Ohor gazt. Mondra - Mariño	1-0
Big gazteak. Arrasate - Internacional	3-0
Ohor gazt. Antiguoko - Arrasate	6-0
Neskak. Mondra - Gasteizko Aurrera	4-3

SASKIBALOA

Semiiorrak. Calahorra - Kenci Arrasate	64-73
23 urt azp. D Gonzalez - Kenci Arrasate	52-70
Jun neska. Ind. Niessen - Kenci Arrasate	89-15
Kadete. Easo B - Kenci Arrasate	75-58

ESKUBALOA

Gazteak. Arrasate - Bergara	25-31
-----------------------------	-------

Oporren ostean, indarberrituta hasi du Kenci Arrasatek azken txanpa

XABIER URZELAI

Kenci Arrasatek irabazi egin zuen joan den astean Calahorraren jokatuako partidua. Arrasatearrek bikain aprobeztatu dute oporraldia, eta igoera faseko azken txanpa gogotsu hasi dute. Bihar, Nafarroako Caja Rural Ardoi taldea izango dute aurkari.

Arrasatearrak fin ibili ziren joan den astean, eta Errioxako taldeak ezin izan zuten, nahiz eta etxean jokatu, Arrasateko mendean hartu. Arrasatekoak igoera faseko Gipuzkoako talde onena bilakatzeko asmoz abiatu ziren Errioxara, baina horretarako, garaipea ezinbestekoa zen. Partiduko lehenengo minutuetan ez zen erritmorik izan, joko geldoa eta tentsio txikia baizik. Errioxarrek hartu zuten aurre, baina arrasatearren lanari esker ez zuten alde nabarmenik eskuratu. Lehenengo laurdena amaitu zenerako etxeakoak 17-12 ziren aurretik.

Bigarren laurdenean Arrasatekoen defentsak ez zuen hobera egin, baina erasoan erakutsitako abileziari esker, arrasatearrek aurre hartu zuten. Edozelan ere, bigarren laurdeneko azken minutuetan 4-0 puntuko partziala egin



ARTXIBOA

Etxe taldeak zapatuan jokatu du, Caja Rural taldearen kontra, Nafarroan.

zuten errioxarrek, eta norgehiagoka parekatzea lortu zuten.

AZKEN LAURDENA, ERABAKIGARRIA

Hirugarren laurdenak ez zituen gauzak batere argitu, eta talde biek saskiratze on beste akats egin zituzten. Horrela, hirugarren laurdena amaitzerakoan partidua bizi-bizi zegoen, markagailuak 54-56 erakusten zuten.

Calahorrako Europa kiroldegian batu ziren ikusleek azken

unera arte itxaron behar izan zuten partidua zelan amaituko zen ikusteko. Eta azkeneko hamar minutuetan egin zuten arrasatearrek gogor. Zonakako defentsari esker, errebote ia guztiak mondragoetarrek hartu zituzten, eta kontraeraso azkarrei esker arrasatearrek aurre hartu zuten markagailuan. Aurre hartu, alde eskuratu eta alde horri eutsi. Horrelaxe, hain justu ere, nagusitu ziren arrasatearrak: 64-73.

FOTOKIROLA



Gimnastak Donostian izango dira bihar

Oraingo zapatuan, Eskola Arteko A mailako txapelketaren bigarren fasea jokatu da Altzako kiroldegian, Donostian. Arrasateko taldeari dagokionez, hamabi gimnasta izango dira txapelketan. Horietako sei alebin mailan ibiliko dira, bai taldeka, baita bakarka ere. Bakarkako ariketak sokarekin egingo dituzte. Infantil mailan gimnasta bat izango da, eta ariketa pilotarekin egingo du. Azkenik, gazte mailan bost gimnasta ibiliko dira, eta horiek zintarekin egingo dituzte ariketak. /X.U.

IKASTAROAK ATZERRIAN

haur, gazte eta helduentzako

CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

**INGELES
FRANTSESA
ALEMANA**

- Ekintza turistiko eta ludikoekin
- Eta **CIM**ek beti eskaintzen dizun bermearekin
- Ingeleseko udalekuak Lizarran haurrentzat

Donostia-San Sebastián
Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02

Vitoria-Gasteiz
Florida, 8A.
Tel.: 945 15 01 55



Arrasate
Avda. de Álava, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00

Uda honetan

INGALATERRA

ALEMANIA

FRANTZIA

KANADA

IRLANDA

EE.BB.



ELKARRIZKETA

AMAIA ETA MIREN SOLANAS/ AEROBIK IRAKASLEAK

"Kirola behar bezala egin behar da, ez da nahikoa aldagelara sartzea"

XABIER URZELAI

Ahizpa legazpiar horiek iraila ezker dabilta Lirain Zentroan lanean. Amaiak 24 urte ditu eta Mirenek 23. Lehen ere Arrasaten izandakoak dira gazteei eskolaz kanpoko eskolak ematen, eta orain gustura ari dira aerobika irakasten, nahiz eta gogorra izan.

Zer ikasi behar da aerobikeko irakasle izateko?

Miren: Guk geuk IVEFeko ikasketak egin genituen, Gasteizen, baina hori ez da aerobika irakasteko titulu bat. Batzuek uste dute horrekin nahikoa dela, baina aerobikeko eskolak emateko aparteko ikasketak egin behar dira. Izan ere, aerobikeko irakasle izateko aparteko titulazioa behar da, eta horretarako Gasteizera joan behar da.

Zenbat denbora daramazue aerobikeko eskolak ematen?

Amaia: Nik lau urte daramatzat eskolak ematen, eta Mirenek lehenengo urtea du hau. Biok ere oso gustura gabiltza, nahiz eta oso gogorra izan.

Egunean zenbat eskola-ordu izaten dituzue?

Amaia: Gehiegi. (Barreak). Egunean lau eskola-ordu izaten ditugu, baina eskola horiek presatu egin behar dira. Aerobikeko eskolez gainera, *step-a*, sasoiaren egoteko gimnasia eta beste ekin-tza batzuk ere egiten ditugu.

Jakina da kirola egitea ona dela osasunarendako, baina horrenbeste?

Miren: Gure ustez, gehiegizkoa dela esango nuke, eta argi daukagu bizimodu erritmo hau ez dela luzerako. Monitoreok egun osoa jarduten dugu kirola egiten, baina gutxi daude hogeita hamar urtetik aurrera ere horrela jarraitzen dutenak. Erritmo horrekin jarraitzea ezinezkoa da.

Nondik dator aerobika?

Miren: Horren inguruan ere zerbaite ikasi genuen, baina dagoeneko... AEBetan asmatu zuten aerobika, eskolak eramangarriagoak egiteko. Jane Fonda aktorea izan zen kirol horren bul-tzatzaile nagusia.

Aerobikak eduki du indar handien. Edozelan ere, orain beste modalitate batzuk ere badaude, ala?

Amaia: Orain beste hainbat modalitate jarri dira modan, baina guztiak datoz aerobiketik; izan ere, musika erabiltzen dute oinarri moduan. Azkenaldian, *body-pump* delakoa oso modan jarri da. Modalitate horretan pisuekin egiten dute lan tonifikazioa lantzeko. *Step-a* ere asko egiten da; ariketa horretan eskailerak igo eta jaistea da helburua. *Aerocombat-*



XABIER URZELAI

"Uda gertu dago, baina hemen ez da miraririk egiten. Jaten dena zaindu, eta kirola egin"

"Aerobika egiteko ez da aparteko ezer behar. Dibertitzeko gogoia daukan edonork egin dezake"

a ere asko egiten da; azken horretan, esate baterako, borroka arteen nahasketa egiten da.

Bakalao musika da aerobika egiteko balio duen bakarra?

Miren: Hasiara baten, musika hori asko erabiltzen zuten, baina orain, beste musika mota batzuekin ere asko jokatzen da. Aukera asko daude horretarako.

Uda gertu dago; nabaritzen duzue?

Amaia: Bai, eta asko, gainera. Izan ere, uda hurreratu doan neurrian, jende gehiagok ematen du izena aerobika egiteko.

Zer gomendatuko zenioke kiloren bat edo beste kentzekotan dabilenari?

Miren: Lehenik eta behin,

hemen ez dela miraririk egiten, eta gero, ahoa ixteko gomendatuko nioke. (Barreak). Argi dago zer jaten dugun zaindu egin behar dugula, eta horrez gainera, kirola egiteko esango nioke. Kirola egiteko asmoa duenak behar bezala egin dezala, askok uste izaten dutelako aldagela batera sartzearekin nahikoa egin dutela. Eskolak behar bezala egin behar dira, eta ariketetan ahalegindu.

Astean barrena horrenbeste dantza egin eta gero, asteburuan diskoteketara joateko gogorik izaten duzue?

Miren: Nik asteburuak deskantsatzeko aprobetxatzen ditut.

Amaia: Ni ez naiz oso diskotekazalea, baina parrandarako gogoia berdin-berdin izaten dut.

EMAKUME TXOKOA

IKASTARO BERRIAK APIRILEAN

MUSIKOTERAPIA IKASTAROA

Astelehenetan, 19:00etatik 20:30era
Ostiraletan, 16:00etatik 18:00etara
Plaza mugatuak
Izenak eman lehenballehen

EUSKAL HERRIKO HISTORIA EMAKUMEEN IKUSPUNTUTIK

Astelehenetan, 17:00etatik 19:00etara
Plaza mugatuak
Izenak eman lehenballehen

EMAKUME ETA GIZONEZKOAK PUBLIZITATEAN

Informazio gehiago:
Emakume Saila. Tel.: 943 79 41 39
Gazte Bulegoan. Tel.: 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila



Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailetako arduradunek aurkeztu zituzten XII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak.

XII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak, Udalaren eta ikastetxeen eskutik

IKER BARANDIARAN

Joan den eguaztenean, Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailek XII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak aurkeztu zituzten. Talde profesionalen emanaldiak, Amaia Antzokira bisitak eta ikasleek eurek antzeztutako lanak izango dira.

Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailetako arduradunek herriko ikastetxeekin lankidetzan antolatutako XII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak aurkeztu zituzten. Jardunaldi horiek hiru fase-

tan banatu dituzte. Bata, Haur Hezkuntzako, Lehen Mailako Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleendako antzerki talde profesionalen emanaldiak (apirilaren 24an, Shambu taldearen *Jolas-ordua*; apirilaren 30ean, Txamuskiña taldearen *Txintxa Rapiña*; maiatzaren 7an, Panta Rhei taldearen *Helen*, eta maiatzaren 20an, Paraiso Teatro taldearen *Ni hartza naiz*).

Bestea, Lehen Mailako Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek Amaia Udal Antzokiko instalazioak ikus ditzaten pres-

tatutako ekimena (maiatzaren 14an eta 15ean).

Eta azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleek antzeztutako lanak egingo dituzte. Amaia Udal Antzokian bertan, jendarraren, taula gainera igoko dira (apirilaren 17an eta 18an).

Programa horren arabera, antzerkia ikusi, Amaia Udal Antzokia barrutik ezagutu eta ikasleek eurek antzeztutako lanak egingo dituzte. Amaia Udal Antzokian bertan, jendarraren, taula gainera igoko dira (apirilaren 17an eta 18an).

XV. Arrasate Lehiaketako finalistak izenak ezagutzera eman dituzte

I.B.

AEDk aditzera eman ditu XV. Arrasate Lehiaketako finalistak gelditu direnak. Lehiaketak hainbat sail ditu, eta sailkatutakoak adinaren arabera banatuta daude. Laster jakingo dugu bakoitzak zein sari eskuratu duen.

AEDk aditzera eman du Arrasate Lehiaketako XV. aldiko finalistak zeintzuk diren. Ipuinetan, 12 urte artekoetan, Ane Ibabe, Libe Aranburuzabala eta Maier

Errasti izan dira finalistak. 13 urtekoei dagokienez, Ainara Bordes eta Jone Sagasta. 14 urtekoetan, Markel Baltzategi eta Hasier Eraña. 15 eta 16 urtekoetan, Onintze Gorospe. 17 urtetik aurrera, Mainer Osa.

Poesian, 14 urte artekoetan, Jone Sagasta eta Maddi Urizar. 15 eta 16 urte artean, Itziar Osa, Nagore Arriolabengoa eta Idurre Osa. 17 urtetik aurrera, Iñigo Louvelli eta Mainer Osa.

Bertso-paperetan, 14 urte artekoetan, Maite Fraile eta Maddalen Akizu. 15 eta 16 urte

artean, Maitane Mazmela eta Idurre Osa. Eta 17 urtetik aurrera, Jokin Labaien eta Mainer Osa.

Komikian, 14 urte artekoetan, Gorka Pérez de Obanos, Noemi Sierra eta Irune Elexpuru, Mireia Flores eta Eli Berridi. 15 eta 16 urte artean, hutsik geratu da. Eta 17 urtetik aurrera, Gaspar Ferreira gelditu da finalista. Laster jakingo dugu zein sari eskuratuko duen finalista bakoitzak. Garaiz iragarriko dugu epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa egingo duten eguna.



Bingen Mendizabal eta Mikel Urdangarin izango dira taula gainean.

'Bar Puerto' ikuskizuna bihar Amaia Udal Antzokian

I.B.

Institutuaren 25. urteurrena ospatzeko, *Bar Puerto* ikuskizuna eramango dute bihar Arrasatera. *Bar Puerto* ikuskizunaren atzean, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Kirmen Uribe ditugu.

Bihar bertan, Arrasateko Institutuaren 25. urteurrenako ospakizunen barruan, *Bar Puerto* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da Amaia Udal Antzokian. 22:30etik aurrera, Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabal musikariak arituko dira.


MUSIKARI TREBATUAK

Bar Puerto izenaren atzean, Mikel Urdangarin Zornotzako kantari ezaguna eta Bingen Mendizabal musikaria daude. Mikel Urdangarin kantaria oso ezaguna egin

da azken urteetan. Eta Bingen Mendizabalek ibilbide luzea egin du. Besteak beste, Nahiko eta Hertzainak musika taldeetan antzeztu izan da, eta filmendako soinu bandak ere sortu ditu.

Hasierako *Bar Puerto* ikuskizunak literatura, musika eta bideoa batzen zituen. Kirmen Uribe idazle ondarrutarraren hitzak oinarri hartuta, irakurketa musikal berritzailea egin dute. Izen bereko diskoa ere grabatu zuten Gaztelupeko Hotsak disko etxearekin: *Bar Puerto, bazterreko ahotsak*. Disko hori grabatzeko, jazz, folk eta rock estiloko beste musikari batzuen laguntza ere izan zuten.

Bar Puerto ikuskizunean doinu herrikoiak sortu berriko kantuekin uztartzen dira. Hortaz, gogora ezazue, Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabal izango ditugu taula gainean.



Txotxongiloak Monterongo liburutegian

Liburuaren Eguna dela eta, Udal Liburutegiak apirilera antolatutako ekitaldien barruan, Gus Marionetak *Marrubizko printzesa* lana eskainiko du eguenean, apirilaren 25ean. Nafarroako txotxongilo horien lana adin guztietara zuzenduta dago. Irakurtzeko zaletasuna piztu gura du, eta liburu bat irakurri barik uzten duen neskatila baten ipuina kontatzen du.

E, TXO!

GUREGAIK / ESKOLA PARTIKULARRAK

Gazte askok eskola partikularrak izaten dituzte eskolaz kanpo

IKER BARANDIARAN

Geroago eta ume eta gazte gutxiago ikusten da herriko kaleetan jolasean edo bueltaka. Izan ere, joan den aspaldian, gurasoek joera handia daukate seme-alabak eskola partikularretan apuntatzeko.

Guraso askok eta askok bidaltzen dituzte seme-alabak, eskolatik irten ondoren, eskola partikularrak jasotzera. Alde bategatik, seme-alabei heziketa handiagoa eman eta beste zaletasun batzuk erakusteko asmoz; eta bestetik, eskolaz kanpo daudenean leku jakin baten gauza konkretu bat egiten ibil daitezen seme-alabak.

HIZKUNTZAK ETA MUSIKA


Eskolan eskas samar dabilzan gazte batzuk eskola partikularrak jasotzera bidaltzen dituzte gurasoek, suspenditu dituzten ikasgaiak gaindi ditzaten. Horietako batzuk akademietara joaten dira eta beste batzuek, berriz, irakasle lanak egiten dituztenen

Geroago eta gazte gehiagok ikasten dituzte hizkuntzak, eta baita Informatika ere

etxeetara jotzen dute.

Bestalde, gazteak ez dira eskola partikularretara joaten eskolako ikasgaiak gainditzeko bakarrik. Hizkuntzak ikastera, esaterako, jende mordoak joaten da, bai Ahizke-Cim-era, Idioma-erera, Parlance-ra edo Bazter Alai-ra. Hala ere, eskoletan geroago eta gazteago irakasten dituzte atzerriko hizkuntzak; ingelesa, batez ere. Edozelan ere, akademietan ingelesa bera, frantsesa eta alemana ikasten dute gazteek.

Horrez gainera, musika ikasteko zaletasuna ere haziz doa. Gazte askok gitarra, baxua, esku-




IKER BARANDIARAN

Ikasketek buruhauste handiak ematen dizkiete gazteei, bai eta gurasoei ere.

soinua edo bateria erosi, eta euren kasa ikasten dute, baina beste askok musika eskoletara jotzen dute; Arrasate Musikalera, esaterako. Horrela, musikaren ezagutza bera eta ehunka instrumenturekin musika jotzen ikasteko aukera izaten dute Arrasate Musikalen, eta horre-

tan dabilta hainbat eta hainbat gazte.

Eskola horiez guztiez gainera, gazte askok eskolaz kanpo kirolak ere egiten dituzte. Horra hor, esaterako, Arrasaten dauden kirol talde mordoak. Izan ere, askok entrenamenduak izaten dituzte eskola orduetatik kanpo.



Ate + leihoak



Salterain

PVC-zko ate eta leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE

BEHEKOTABERNATIK

NIREBIDAIAHURA / Leire Aperribai

Agustin Murillo

GURE LEKU TABERNAKUE

XABIER URZELAI

Agustin aspaldi hasi zan tabernari lanetan, hamasei urtekin, gutxi gorabehera. Ekaiñien, 37 urte egingo dittu Agustiñek, eta gustora egingo dittu, pozik bizi da-eta. Zinezale amorratue, astien birritan jueten da Gasteizera, baiñe pelikula gehixenak bideuen ikusten dittu. Denpora faltiagaittik-edo.

Amets bat?

Andaluziako kostara bizi izetara juetie.

Eta amets txar bat?

Zinie desagerketie.

Egin dozun azken biajie?

Extremadurara, Aste Santuen.

Txartel horixe, zeñei?

Victor Manjóni.

Eta gorrixe?

Koldo Etxebarriari.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Snatch cerdas y diamantes. Oso gomendagarrixe da / El señor de los anillos / Metallica taldie.

Drogak legalizauko zittukie?

Batzuk bai; haxixa, marihuania...

Eta prostituziñue?

Hori be bai. Norberak erabaki daixela bere bizitzakin ze egin gure dauen.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue gustetan jat, baiñe ondiokan gaztie naz, eta diskotekak gurago.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Gauza asko. Jentie, batez be.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Tabernen ordutegixe luzatuko neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskadiko egoerie hobeketan ahaleginduko nitzake.


Bizio bat?

Pelikulak.

Mendi bat?

Hiru Erregeen mahaia.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?



"Musikie ordenadore bidez jarten dogu. Askoz be azkarrago egitten da eta komoduague da"

Gorka Iraola.
Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?
Enemiguekin.
Telebisiñoko programa bat?
Paspalabra eta Date el bote.
Eta irratikue?
Ez dot irratirik entzuten.
Zertan gastauko zeunke dirua?
Etxie txukundu eta biajetan.
Informatikaren aldeko apostue egin dozue.
Bai, ordenadore bidez jarten dogu musikie. Komoduague da.
Hurrengo pausue ciberkafe bat jartie izengo da?
Ez, ez dauket intenziñorik.
Domeketan ze ordutan jai-

"Zinie izugarri gustetan jat. Astien birritan jueten naz Gasteizera; bestela, bideuen ikusi biher"

kitten zara?
Lan egin biher badot, hiruretan. Bestela, batek daki!
Zeintzuen lekue da Gure Leku?
Geuri bisitetie gure dauen edozeñendako.
Noix egoten da tabernan ambiente polittena?
Zapatu arratsalde eta gabetan.
Zerk edo zeñek ez dauka lekurik taberna honetan?
Molestetako goguakin etorten dienek.
Zenbat bider jarri dozue Operación Triunfo-ko abestiren bat?
Azkenekoz, juen dan zapatuen ipiñi geuen, Luis Izquierdok behin eta barrero eskatuta.

Tunisiara / 2002ko Aste Santuan

Leire eta ahizpa, Errukane, Tunisian egon dira Aste Santuan. Giro epelaren bila abiatu ziren hegoalderantz, eta eguraldi txarra egin ez duen arren, giroa ez da uste zuten bezain epela izan. Maroko aldera joateko asmoa bazeukaten ere, azkenean Tunisian egon dira. Errukane lehen ere izana zen Tunisian, eta azken zazpi urteotan gauzak dezente aldatu ei dira.

Tunisian, arrasatear hauek ez dute hiriburura joateko astirik izan. Hala ere, ezin esan daiteke gora begira egon direnik, Tunisiako iparraldeaz gain, hegoaldean ere gauza dezente ikusi dituzte-eta. Leireren esanetan, han ikusitakoa turista guztiei erakusten dietena da, baina interesgarriena ei da; hortaz, pozik etorri dira han ikusi dutenarekin. Besteak beste, Djem eta Mat Mata herrietan izan dira. Mat Mata herrian berberak bizi dira; lehen hara eta hona ibiltzen zirenak Mat Matan finkatu dute bizilekua. "Ikusgarria da askok zer-nolako etxeak dituzten. Lur tontorrrak barrutik hustu egiten dituzte eta kobazulo artifizialak sortu, eta han bizi dira. Gobernuak, hala ere, dirulaguntzak ematen dizkie, kobazulo horietatik irten daitezen".

Tunisian argi daukate turismoa diru-iturri ederra dela, eta azken urteotan lurraldea turistendako egokitu dute. Edozelan ere, inguruak egokitu badituzte ere, Leireren esanetan, hango bizilagunak oraindik ez dauke guztiz ohituta. Paisaia ederrez osatutako lurraldea da Tunisia, ederrak eta askotarikoak: "Lur eremu txikian paisaia asko aldatzen da. Iparraldeak Mediterraneoaren traza handia dauka, eta hegoalderantz jotzen den neurrian, inguru erabat aldatzen da". Azpimarratzekoa da, era berean, Tunisiako garraio publikoak ondo funtzionatzen duela; eta komeni da garraio publikoa erabiltzea.



"Aljeriatik oso gertu egon ginen, baina hobeto hara ez joatea"

"Tunisian garraio publikoak nahiko ondo daude"

XABIER URZELAI




Leire eta Errukane Tunisiako oasi batean.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



ARRASATE ORTOPEDIA

Maalako Errabala 8. Tel.: 943 77 20 78
Astelehenetik egubakoitzera:
10:00-13:00 eta 16:30-20:00

Osakidetzarekin eta Lagun Aroekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez

Oinaren azterketak: tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
Umeak: hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.

Materia bigunen erabilera: oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
CAD/CAM sistema: Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).
Neurrira eginiko oinetakoak.
AEBetatik inportatua.

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

ZAHARREN ETXETIK



XABIER URZELAI

Munduko biztanleriaren zahartzeak ekarriko dituen ondorioei zelan aurre egin aztertzen aritu ziren.

Zahartzearen Gaineko II. Mundu Batzarra bukatutzat eman dute

IKER BARANDIARAN

Madriilen egin berri duten Zahartzearen Gaineko II. Munduko Batzarrean zahartzearen eta zaharren inguruko hainbat jai jorratu dituzte. Munduko mutur askotako bost mila aditu inguruk berbaldu ugari egin dituzte Madriilen.

ARRASATE PRESSkoak munduko batzar horretan, Madriilen, egon ez ginen arren, han zahartzearekin lotuta aipatutako hainbat kontu bildu eta zuen-gana ekarri ditugu.

Batzarrean aipatutako kontu adierazgarrietako bat honako datua da: 2050. urtean, munduko biztanleriaren zati handi batek 60 urte baino gehiago izango ditu, eta guztira, hamabost urte baino gazteago direnak baino gehiago izango dira. Hortaz, munduko biztanleria zahartu egingo da. 2050. urtean, batez beste, biztanleriaren %33,5ak hirurogei urte baino gehiago izango du.

NBEko idazkari nagusi Kofi Annan-ek esan zuen munduko

biztanleriaren halako proportzio handia zaharra izateak gizateria osoan izugarritzko eragina izango duela, "bai zaharregan baita gazteeengan ere". Eta beldur da arazo horrek ez ei dituen herrialde txiroak txiroago egingo.

Osasunaren Munduko Erakunde zuzendari nagusi Gro

Harlem Brundtland ere gizetariaren zahartze nabarmen horrek arduratzen du.

GAIXOTASUNEN PREBENTZIOA

Gro Harlem Brundtland-en esanetan, gaur egungo medikuntza gastuen %30 dagoeneko 75 urte baino nagusiagoak direnak osatzen gastatzen dute. Eta gaur egun 75 urte baino gehiago dituztenak munduko biztanleria osoaren %5 besterik ez da.

Gauzak horrela, alternatiba zehatzak proposatzen ditu aipatutako arazo horiek saihesteko. Brundtland-en ustez, osasungintzak prebentzioan orokorrean eta gaixotasunak ahal den lasterren antzematen egin beharko lituzke inbertsioak. Hainbat gaixotasun saihesteko ahalegin handiagoak egin beharko litzateke, Brundtland-en ustez: "Kantzerrari jarraipen sutsuagoa egin beharko genioke, tabakismoa eta alkohol kontsumoa gutxitu, eta elikadura askoz gehiago zaindu. Azken baten, bizimodu mota aldatzean dago gakoa, hori egitea besterik ez dago".

Mundua zahartuz doa

Nazioarteko bost mila adituk zahartzearen eta zahartzearen inguruko hainbat gai jorratu zituzten joan den astean. Datu zehatz batek kezkatu ditu, batez ere: 2050. urtean, 15 urte izango dituztenak baino 65 urte izango dituzten lagun gehiago egongo dira munduan.

Horrek izan ditzakeen eraginak aztertu zituzten bildutakoek.

LABUR

1940. urtean jaiotakoek bilkura egingo dute apirilaren 27an Arrasaten

1940. urtean jaiotakoek bilkura egingo dute apirilaren 27an. Egundun horretan, meza izango dute 12:30ean, San Frantzisko elizan. Gero, ohiko txikiteroaren ondoren, bildutako guztiek bazkari goxoa izango dute Amaiak-Gazte elkartearen. Interesatuak ahal den lasterren esan beharko diote Mario Ugarteri, Gregorio Beitiari edo Angel Kuku-ri. 943 79 12 60 telefonora ere dei dezakete.

Alzheimer senitartekoaren elkarlaguntza taldeen ziklo berriari hasiera emango diote


AFAGIk, Gipuzkoako Alzheimer Senitartekoaren Elkartek, gaixotasun horrek jotako sendiei adierazi gura die apirilaren 25ean, arratsaldeko lauretan, elkarlaguntzarako taldeen ziklo berriari hasiera emango zaiola, AFAGI elkarteak Arrasaten, Arrasate pasealekuko 3an duen egoitzan. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 655 71 18 37 telefonora.

ZAHARREN AHOTIK

Andres Inda

MUSAKOLAKO ZAHARREN EGOITZAKO PRESIDENTEA

Andres Inda 1931n jaio zen, Iturriotzen. Hiru anaietatik nagusiena. Leku askotan lanean ibilia da, eta egun, zaharren egoitzan dabil.



Gerrak mutiko zinela harra-patu zintuen, ezta?

Bai, lauzpabost urte nitue-nean gerra hasi eta Bilbora jo genuen errefuxiatu. Gero, handik Santander aldera bidali gintuzten. Tartean, aita kartzelan sartu zuten. Gerra bera baino gehiago, haren eraginak gogoratzen ditut: bonbek suntsitutako eraikinak, eta geroko gosea eta bidegabeke-riak. 1938an, aita izan ezik, besteok Arrasatera bueltatu ginen. San Frantziskora joan nintzen mojetara. Handik Eskola Nazionalera, San Viatorrera... Azkenik, Eskola Profesionalean Ofizialtza ikasi nuen, eta gero, lanera...

Eta lanean leku askotan ibilia zara, ezta?

Bai. 1947an, Elman lanean hasi nintzen. Tailer mekanikoetan ibili nintzen, trokelatzen, prentsan... 1965ean, ordea, Coprecira jo nuen eta

errebolber tornuetako arduradun ibili nintzen. 1970ean, Huelvako Hugi enpresara joan nintzen, bi urtez. Ordurako, Maria Aranzazu Galdos ezagutu eta ezkondu geunden. Handik bueltan, 1972an, Zaldibarren lanean hasi eta Matienara joan ginen bizi izatera. 1975ean, herrira bueltatu eta Elman lanean ibili nintzen aurre-erretiratu nintzen arte.

Eta orain, Musakolako zaharren egoitzan?

Bai, gobernuz kanpoko Harreman erakundearen ibili nintzen, baina 1992tik hona, Musakolako zaharren egoitzako batzarrean nabil.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



ARRASATE
HOTELA

Biteri, 1

Tel.: 943 79 14 16

ARRASATE

arbolapeta



ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



ARRASATE
Bienvenido Martínez eta Ane Rivas
Apirilaren 26an, urtebetetzea.
Zorionak eta urte askotarako!
Familiaren partetik.



ARRASATE
Itxaso Gallastegi
Apirilaren 19an, 12 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Ibai Zubizarreta
Apirilaren 24an, 11 urte.
Zorionak! Etxekoak eta,
bereziki, BOTXAN.



ARRASATE
Ainhoa Arkauz
Apirilaren 17an, 25 urte.
Zorionak! Ortz, Eli eta
etxekoak. Aupa Erreal!



ARRASATE
Irati Lekue
Apirilaren 26an, 12 urte.
Zorionak, Maalako neska
jatorrenari! Nerea eta Maria.



ARRASATE
Goizeder Uribe
Apirilaren 21ean, 15 urte.
Zorionak! Baserrikoen eta
etxekoen partetik.



ARRASATE
Itsasne Landa
Apirilaren 27an, 12 urte.
Zorionak, potxola! Etxe-
koen partetik.



ARAMAIO
Ane Uriarte
Apirilaren 13an, 14 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARAMAIO
Lorea Oyanguren
Apirilaren 24an, 14 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Peru Atxa
Apirilaren 19an, urtebete.
Zorionak! Etxekoak.



ARETXABAETA
Amagoia Lasagabaster
Apirilaren 19an, urtebete-
tzea. Zorionak, deabrutxo!
Lankideak.



ARAMAIO
Alfonso del Campo
Apirilaren 17an, urtebete-
tzea. Zorionak! Txirritola.



ARRASATE
Aritz Unamuno
Apirilaren 16an, urtebete-
tzea. Zorionak! Almeriako
bunkerrekoen partetik.



ARRASATE
Mikel Irastorza
Apirilaren 18an, 31 urte.
Zorionak! Txatxilikoen par-
tetik.



ARRASATE
Agustin Torres
Apirilaren 14an, urtebete-
tzea. Zorionak! Familiako-
en partetik.



ARRASATE
Maialen Zubizarreta
Apirilaren 22an, 6 urte.
Zorionak! Umezaintzako
laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Ursuia Etxebarria
Apirilaren 21ean, 21 urte.
Zorionak! Txatxilikoaren par-
tetik.



ARRASATE
Ainhoa Vega
Apirilaren 23an, 20 urte.
Zorionak! Etxekoaren par-
tetik.



ARRASATE
Ander Murillo
Apirilaren 20an, 6 urte.
Zorionak! Umezaintzako
laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Eneritz Algaba
Apirilaren 20an, 11 urte.
Zorionak! Gurasoen eta
anaiaren partetik.



ARRASATE
Abene Barrena
Apirilaren 21ean, 25 urte.
Zorionak! Mikel eta Eva.



ARRASATE
Iker Murillo
Apirilaren 23an, 11 urte.
Zorionak! Etxekoaren parte-
tik.



ARRASATE
Jon Aranburu
Apirilaren 21ean, 6 urte.
Zorionak! Umezaintzako
laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Nora Giraldo
Apirilaren 19an, 29 urte.
"Zoiona ixeba Noda"!
Urtzi.



ARRASATE
Iban Zubizarreta
Apirilaren 18an, 27 urte.
Umore onari eutsi eta zorio-
nak! Mertxe eta familia.



ARRASATE
Rafa Mungia
Apirilaren 21ean, urtebe-
tetzea. Zorionak, trillero!
Lagunen partetik.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **apirilaren 20tik 30era** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.**



**Zorion itzazu zure lagun
eta senitartekoak.**

Zatoz Arrasate Pressera argazki
batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

gorka ileapaindegia
ordutegia:
astartetik ostiralera 09.30 - 20.00
larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate
943 77 13 78

GORKA
ileapaindegia

**CLUB
IYOLA**

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29



**Aretz
Taberna**

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABAETA

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



RKUZ ALIZARIAN
Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

TXE **MOBCL** MUGARLET ALIZARIAN
Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ SUNALDE INTEGRALA
Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
ARETXABALETA

RKUZ GENTRAGRIEUBAN
Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA **expert**

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko apirilaren 19a / 23. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Mexikoren eta Kaukasoren gaineko liburuak, kalean

UBANE MADERA

Kalean dira dagoeneko aurtengo Sagitario sarian irabazle izan diren liburuak. Gurutz Garmendiaren *Mexikotik Barrena* eta Jorge Gonzálezen *El Avispero Caucásico* liburuak irabazi dute. Liburu bakoitzeko 1.000 ale atera dituzte kalera, eta liburu dendetan daude erosgai dagoeneko.

Joan den egunean aurkeztu zituzten Donostian aurten Sagitario Sarian irabazle izan diren bidaia-liburu biak. Gogora dezagun euskal alorrean Gurutz Garmendia azkoitiarraren *Mexikotik Barrena* liburuak irabazi duela. Eta gaztelaniazko tartean, berriz, Jorge González arabarraren *El Avispero Caucásico* liburuak irabazi du garaile. Hain zuzen ere, joan den urteko azaroan jaso zuten

saria irabazleek, eta orain, liburuak argitaratuta ikusiko dituzte. Lehiaketa horren arduradun eta liburuen editore Jean Françoise Saurék adierazi digunez, liburu bakoitzeko 1.000 ale plazaratu dituzte, eta liburu dendetan daude erosgai dagoeneko. Horrela, Urola inguruko bazterrak atzean utzi eta Mexiko kolonialean eta indigenan barnertzen da Gurutz Garmendia. Tijuana hasita, Behe Kalifornia, Sonorako desertua, Sierra Madre, Mexiko DF eta beste hainbat hiri ezagutzeko aukera ematen digu azkoitiarraren liburuak. Jorge González de Mataucok, berriz, antzinako Sobiet Batasuneko lurraldeetara garamatza bere liburuarekin. Mallorcan bizi den arabar horren ustetan, Balkanen jarraipena da Kaukaso, baina askoz ere ezezagunagoa. Hori dela eta, mundu hura gerturatu gura izan du berak.


Esan beharra dago, era berean, liburuotan azaltzen diren argazkiak Iban Astondoak eta Eva Garcések egin dituztela.

Sagitario saria antolatzen duten laugarren aldía izan da aurtengoa. Jean Françoise Saurék jakinarazi digunez, orain, geldionetxo bat egingo dute, orain artekoa ikusi eta baloratzeko.



UBANE MADERA

Joan den egunean aurkeztu zituzten liburuak, Donostian.



Arbel Eguna baserritarrendako

Zapatuan ospatu zuen Aramaioko Baserriarren Elkarteak Arbel Eguna. Mezarekin hasi zuten eguna, trikitilariak alaitutako kalejira ere izan zuten eta batzar nagusiaren ondoren, guztiak batera bazkaldu zuten, eskolan. Arratsaldean, berriz, txaranga izan zen kalean eta 22:30etik aurrera, pilota partiduak.

Duela 21 urte sortu zuten Aramaioko Baserriarren Elkartea, baserriarren interesak babesteko; gaur egun, 96 bazkide ditu. Pentsuak kudeatzen dituzte, bereziki, baserriarrendako ahalik eta pentsu onena eta merkeena lortu guran.

ATREBENTZIAEZPADA/ Limitadoa, Aramaiorendako edo Otxandiorendako?



INAZIO ALDIZABAL
Langilea

Nire ustez, Limitadoa Arabarendako izan beharko litzateke. Inguru hori Araba da, beti izan da Araba; jakina, nire iriziz...



RICARDO BALANTZATEGI
Langilea

Arabarendako. Bizkaitarrek bakarrik gura dute lur haien usufuktua. Interes ekonomikoak dira. Eurek ez dute ezer zaintzen, ez lurrak...



JULIAN ASTOLA
Langilea

Arabarendako. Dena dela, arazoa konpontzea da onena. Baina Araban segitu beharko luke, handa da eta Araba dela esaten duten mugarririk.



JESUS MARIA IBABE
Langilea

Gai horren gainean azkenean jakin izan dudana da erdibitu egin behar dutela. Nire ustez, hori izango litzateke behin betiko irtenbide egokiena.



MAIALEN URIZAR
Ikaslea

Nire ustez, Aramaiorendako. Aramaio handia denez, apur bat handitxoagoa izatearren ez da ezer gertatzen. Eta Otxandio... ba, han.

LABUR

Turkiako kartzeletako egoera aztergai

Orain dela urte eta erdiko apirilaren 20an, 200 preso politikoko kurduk eta turkiarrek gose greba hasi zuten. Turkiako kartzeletan jasaten ari ziren sarraskia salatzen. Ordutik hona, 89 lagun hil dira gose grebaren ondorioz: 83 preso eta sei senide. Eta kartzelako eta herrietako egoera ez da aldatu.

Hori guztia kontatu eta salatzen, hitzaldia eta bideo emanaldia izango da datorren apirilaren 26an, 20:00etan, kultura etxean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (bandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaleteia	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

ARETO FUTBOLEKO EMAITZAK

Bañerako neskek gogotsu segitzen duten arren, ezinean dira Baro-Calo taldearen aurrean. Joan den zapatuan, 25-0 galdu zuten. Eta gainera, oraingo zapatuan, talde bera izango dute aurrez aurre berriro ere. 11:30ean izango da partidua, Aramaion. Ea oraingoan zorte hobea duten Bañerako neskek. Bestalde, Bañerako kadete mailako mutilek 7-1 irabazi zieten Presentación de María eskolako mutilei. Oraingo zapatuan, Abetxukon izango dute partidua, eta Aurrera de Vitoria taldea aurrez aurre.

ZINEMA

Oraingo domekan, herriko gaztetxoenei zuzendutako filma emango dute kultura etxean. 17:00etan izango da, betiko moduan. *La Banda del Patio* filma ikusteko aukera egongo da.

BIBLIOBUSA

Joan den barikuan etorri zen Bibliobusa Aramaiora, eta hiri honetako azkeneko aldia izan zen. Maiatzean etorriko da berriro, hain zuzen ere, maiatzaren 3an, 17an eta 31n. Ordutegia, berriz, honakoa da: Ibarrran, 15:45etik 16:45era arte, eta Oletan, 17:15etik 17:45era arte.

HIRUGARRREN ADINEKOENAKO

Maiatzaren 3an (egubakoitza), hirugarren adinekoen bosgarren topaketa izango da. Arratzu-Ubarrundia (Araba) bisitatzeko aukera izango dute oraingo honetan. Interesatuak apirilaren 26a baino lehen eman beharko dute izena. 17 euro kostatuko da.

GIZARTEA

Manex Agirre hirugarren eta Andere Arriolabengoa seigarren

Manex Agirre aramaiarra hirugarren izan zen zapatuan jokatuko Arabako Bertso Txapelketako lehen finalaurrekoan. Hain zuzen, iazko irabazletik nahiko gertu eta txapeldunordearen aurretik geratu da Manex, zapatuan lortutako puntuei esker. Aramaioko kultura etxean jokatu zuen finalaurrekoa beste bost bertsolariarekin. Horien artean, Andere Arriolabengoa aramaiarra ere izan zen, seigarren geratu zen. Bai Andere bai Manex oso pozik ziren lortutako emaitzekin, eta orain, Araian gertatuko denaren zain daude, Araian jokatuko da-eta bertso txapelketako hurrengo finalaurrekoa. Bi finalaurrekoetatik, sei bertsolari (puntu gehien lortzen dituztenak) pasatuko dira finalera: maiatzean Gasteizen jokatuko den Arabako Bertso Txapelketako finalean parte hartuko dute seiok, eta hortik irtengo da Arabako aurtengo irabazlea.



BOTEPRONTOAN/ Esther Uriarte · Oletako auzo-alkatea

“Limitadoa eta Otxandio, biak hala biak izan beharko lirateke Araba”

Aramaioko auzo lautadatsuena eta erdigunetik Aurrutien dagoena bisitatu dugu oraingo honetan: Oleta. Limitadoaren lurak handik pasatzen dira, eta antzina, lau ola zeuden; hortik, auzoaren izena, besteak beste. Esther Uriarterekin egin dugu berba, hura da orain Oletako auzoko alkatea.

Lehenengo aldiz alkate?

Bai, eta lau urteak pasatutakoan, akabo! Besteak ere izan daitezela. Hauteskunde bidez aukeratzen dugu alkatea.

Non dago Oleta?

Orixolen beste aldean gaude. Horrez gain, Kondebaso (Urkiola ingurua) eta Otxandio dira gure mugak.

Zela ikusten dira gauzak Orixol mendiaren beste aldetik?

Hotzago, hotz egiten du; baina era berean, lasaiago bizi gara.

Zelako harremana duzue Ibarrarekin?

Ez dugu ia harremanik, alkatearekin bakarrik, eta dirua eskatzeko izaten da... (barreak). Auzotarrok ere ez dugu Ibarrarekin harremanik; lehenagokoei bai, aitaitak eta amamak... gurasoek kinto afariak...

Bizkairekin muga-mugan zaudete, baina Araba barruan; horrek abantailak ditu?



Bai. Nekazariendako dirulaguntza gehiago ematen ditu Arabako Diputazioak Bizkaikoak baino. Horregatik, Limitadoko bizilagunek arabar izan gura dute.

Hortaz, Limitadoa Araba da?

Jakina, Otxandio ere Araba izan beharko litzateke eta Aramaio Gipuzkoa; logikaren arabera... Bestela, Limitadokoak eta Otxandiokoak Bilboraino joan behar dira diputazioan zerbait egin gura duten bakoitzean, baina telefonoa Arabakoa dute, baita medikua eta ura ere... Bizkaikoa duten bakarra epaitegia da.

Dena dela, Bizkaiko eragin nabarmena duzue...

Bai. Ikasketen lehenengo urteak Legutioan egin bagenituen ere, urrutiegi zegoenez, eskolak egin zituzten Limitadoan, eta hara joan izan gara. Baina guk Biz-

kaiko eragina dugun moduan, Aramaiokoek ere badute Gipuzkoako eragina, hizkeran.

Auzo lautadatsuena da...

Bai. Aramaiotik, handik goitik, patata bat botaz gero, *ra ta ta ta ta ta*, honaino dator. Nik ez dakit zelan bizi daitezkeen horrenbeste mendiren artean. Hemen gustura bizi gara.

Hortaz, horrek ere arazoak eragiten dizkizue?

Lehen bai, baina orain ez; autoekin... Lehen, astoa erabiltzen zuten, oinez ere joaten ziren... Hori bai, orain ere elurra egiten duenean...

Limitadoarekin muga-mugan?

Hemendik pasatzen da. Ustedut lurak Arabarenak direla eta errepidea Bizkairena. Bidea konpontzen eta garbitzen, adibidez, Limitadoraino etortzen dira, eta hortik aurrerakoak Arabak egiten du.

Igartzen duzue ika-mika horren eraginik?

Ez, hori udalen eta diputazioen kontua da. Dena da dirua. Ez diote begiratzen herritarren onurari. Otxandiok lur gutxi ditu, eta Limitadoarekin askoz ere handiagoa izango litzateke. **Zer eskatuko zenioke Udalari Oletarendako?**

Autobusen bat, garraioaren bat, jende nagusiarendako, bereziki...

“Autobusen bat edo garraioaren bat eskatuko nioke Udalari; bereziki, nagusiendako”

“Kanpotarrari San Kristobaletik Zabalaundirainoko mendi buelta erakutsiko nioke”

ERRETRATUZAHARRA


Euskal
ezkontza baten
antzezpena

Arrasatear mordoak parte hartu zuen, 50eko hamarkadan, Arrasaten egin zuten euskal ezkontza baten antzezpenean.

San Pedro eguna zen, ekaina, eta euskal jairen bat aprobetxatu zuten antzezlan berezi hura egiteko.

Gure berriemaileek kontatu digutenez, Union Cerrajeratik irten ziren guztiak, ehun lagun inguru. Tartean, andregaiaren arrea zeraman gurdia ere bazen, karroza modura. Zarugalden zehar Iturripeko futbol zelairaino joan ziren guztiak kalejiran, eta han, Inudeen eta Artzainen Festa egin zuten (ziur ez jakin arren, inudeak eta artzainak Donostia aldetik ekarri zituztela uste dute berriemaileek, Arrasaten ez zegoen-eta horrelakorik). Argazkiak erakusten duen moduan, euskal ezkontza ikustera joan zen jendez gainezka izan zen egun hartan Iturripe.

Behin Iturripeko jaia bukatuta, herriko plazara joan ziren herritarrek. Han bukatu behar zuten euskal ezkontza. Ohituraren arabera, ezkon-



tzera zihoan andregaiaren arrea irakurri behar zuten plazan. Hain justu ere, Mari Karmen Larzabalek irakurri behar zuen. Baina urte hartan gotzaina etorri zen Arrasatera, eta elizan zegoen une hartan. Hortaz, euskal ezkontzaren antzezpena uste baino lehen bukatu behar izan zuten.

Argazkian agertzen den boskoteak ohorezko gonbidatuen papera egin zuen euskal ezkontzan. Ikusten den moduan, oso dotore jantzi ziren antzezlanerako, antzinako jantziekin, perladun lepoko eta guzti. Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita: Miren Azkoaga,

Juanito Egidazu *Kurri*, Digna Etxebarria, Jose Antonio Agirre *Maño* eta Pepita Mendizabal.

Argazkia: Laso


Informazioa: Enrique Landaluze, Pepita Mendizabal eta Mari Karmen Larzabal

Urtea: 50eko hamarkada

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Biteri
Fundazioa eta
Biteri kalea

Aurreko baten, otsail hasieran, Biteri Fundazioaren eta orduko Taxi Geltokiaren argazkia erakutsi genizuen. Orain, ordea, eraikina ikusteaz gainera, Biteri kalearen eta Portaloiaren ikuspegiak ere goza dezakegu. Errepide erdian dagoena aguazila ei da. Seguru asko orduko udaltzainek, zirkulazioarekin, behintzat, gaurkoek baino lan txikiagoa zeukatela.



≈ 1956

Aurreko argazkian hainbat taxi azaltzen ziren norbait eramateko zain. Orain, ordea ez da taxirik azaltzen, nahiz eta autoak egon.



2002

Urteekin gauzak dezente aldatzen dira, baina inoiz desagertu da mendi bat berrogeita hamar urteren bueltan?

**TOLDOS
LETE** C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45

**Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto**



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
baskariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua. 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Edertasunaren Gida

AUSART
Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo
Iturriotz kalea, 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

SUSi
ILE APAINDEGIA
Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

ILEA
Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Jose Antonio
**GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA**
Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

JADE
ILE APAINDEGIA
Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

EDERTU
Ileapaindegia
Zutikako
eta etzandako
solariuma
10 saio 40 €
San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • **ARRASATE**

Lore
Olarre, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa
KORA Ñ NEAL Ayer HR CLARINS PARIS BIOTHERM VALMONT

aitor
Gizonezkoen ile apaindegia
Otalora, 14 • 20500 ARRASATE
Tel.:
943 79 01 39
615 78 19 63

Gida honetan azaltzea nahi baduzu, deitu ezazu 943 71 23 91 telefono zenbakira.



Ile apaindegira baino lehenago heltzen gara.
Ibarreko BERRIAK gertu-gertutik egunero.

BERRIAK

- Astelehenetik egubakoitzera
14:00etan eta 20:00etan
- Errepikapena egunero, 15:30ean eta 21:30ean
- Aurkezleak: **Gorka Etxabe** eta **Maidier Osa**

